

**hh**  
hik hasi

**Iratxe Retolazari elkarrizketa**  
**Sansomendiko Ausarten Kluba**  
**Perpignan-en Haur Hezkuntza**  
**HHko Berrikuntzan Aditu Titulua**  
**Scratch programa informatikoa**  
**Tinko Euskara Elkarte**  
**Iñaki Murua**

132



**ZIENTZIAREN BIZILABE**





# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## ZIENTZIAREN BIZILABE

Elhuyarrek, tokian tokiko administrazioen laguntzaz, gazteentzako ikerketa zentroak eraiki nahi ditu Euskal Herrian. Zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika ezagutzeko eta bizitzeko espazioak eskainiko zaizkie 10-19 urteko gazteei. Zientzia bokazioa pizteko eta beldurra kentzeko aukera eman zaie aisialdiko espazio horietan. Egitasmoa honen lehen kumea Bilboko Bizilabe da.

ELKARRIZKETA / 16

## IRATXE RETOLAZA

EHUko irakaslea kultur sorkuntzaren transmisioaz mintzo da elkarrizketa honetan. Euskal kulturaren transmisioak etenak izan ditu bereizgarri. Gainera, kultura hizkuntza normalizazioaren zerbitzura jarri izan denez, kulturaren transmisiorako baldintzarik eta egiturarik ez dela sortu uste du. Zentzu horretan, euskal kultura zehar-lerro bilakatzeko beharra ikusten du.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Ane Aranburu, Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.

**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.

**Diseinua:** Grafik.

**Maketazioa:** Xangorin.

**Inprimategia:** ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2018-09-12).

**Kopurua:** 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

5 EDITORIALA

Zein garrantzitsua den hezitzaileek transmititzen dutena!

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Zientziaren Bizilabe

16 ELKARRIZKETA

IRATXE RETOLAZA

“Euskal kulturaren transmisioan etena hain sakona izan da, hezkuntzan ere transmisio lan hori egingo duenak ez duela horretarako gaitasunik”

24 ESPERIENTZIAK 1

Sansomendi ikastetxeko Ausarten Kluba

28 ESPERIENTZIAK 2

Perpignan-en Haur Hezkuntzako esperientzia bizitzen

32 EKARPENAK

Alexander Barandiaran: “Zerbait baliagarria eta eragiteko balio dezakeena egin nahi izan dugu”

34 GALDEIDAZU

XABIER MADORRAN DE LA IGLESIA

Zer da eta zertarako erabil daiteke “Scratch” programa informatikoa?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Tinko Euskara Elkarte

42 ATZEKO ATETIK

Iñaki Murua

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia





# Zein garrantzitsua den hezitzaileek transmititzen dutena!

## editoriala

IKASTURTE BERRIAK BEREKIN DAKARREN URDURITASUNAREKIN BATERA, FRESKOTASUNA ETA INDAR BERRIA ERE BADAKARTE HEZITZAILEEK ETA IRAKASLEEK.

Ikasturte berriak, urte berriak bezalaxe, zirrara sortu ohi du. Zerbait berria hastearren sentsazioak eta urduritasunak bat egiten dute asmo berriekin. Promesa, erronka eta helburu berriak ez dira falta izaten. Freskotasuna edo indar berria ere bai, kezkei aurre hartu nahian. Euskal Herriko ikastola batean 4 urteko haurrekin dabilen hezitzaile batek esana da ikasturte honen hasieran: “Banuen umeak ikusteko gogoia!”. Uda aurretik 3 urteko gelan bukatu zuen ikasturtea, eta orain 4 urteko gelan hasi du ume berberekin. Uda osoan haurrak ikusi gabe egon ondoren, ikusteko gogoia, alajaina! “Zenbat hazi ote dira? Zenbat aldatu ote dira? Zer kontu ekarriko ote dizkidate?”. Buruan ezezik, gorputzean ere sentitzen diren galderak dira. Eta pozgarria da hezitzaile baten ahotik horrelakoak entzutea, grina hori ikustea.

Antzeko gogoia eta kemena sumatu genuen 0-3 adin tarteko hezitzaileei zuzenduriko formazioaren bukaeran. Bi urteko iraupena duen formazioa bukatu zuen ekainean laugarren promozioak, eta irailean banatu zitzaizkien akreditazio-diplomak. Ekitaldi batean bildu ziren Hik Hasi komunitateko kideak, formazioko irakasleak eta ikasleak. Ikusi besterik ez zeuden ikasle horien aurpegiak! Bi urteko formazioak eskatzen duen lanaren eta esfortzuaren ondoren, emaitzarekin gelditu dira: euren lanean lagungarri izango duten prestakuntza. Horrek ematen duen poztasuna eta betetasuna islatzen



zitzaien aurpegiko irribarrean. Jarreraren eta hitzen bidez, aldiz, ikasitakoa praktikan jartzeko gogoia adierazi zuten. Baita bizitutakoa euren artean partekatzen segitzeko asmoa ere. Eta egunerokoan haurrei eta gurasoei eskaintzeko intentzioa ere bai. Formazioko irakasleentzat, bestalde, esker hitzak besterik ez zituzten izan.

Formazioko irakasleak ere gustura aritu ziren diplomak banatu eta banatu laugarren urtez. Eta beste bi ere etorriko dira: 5. promoziokoek bigarren ikasturtea egingo dute aurten, eta 6. promoziokoek lehendabizikoa. Hasierako ilusio eta bizipozarekin jarraitzen dute formazioko irakasle horiek Loris Malaguzzi italiarraren eta Emmi Pikler hungariarraren ikasgaiak zabalitzen. Umeekin nahiz hezitzaileekin gozatzen dute. Dakitena bizi egiten dute eta horixe da transmititzen dutena. Indar eta energia hori jasota joaten dira formazioko ikasleak. Hori berekin daramate. Eta haurrekin harremanetan jartzen direnean, hor izango dute.

Antzeko zirrara eta gogoarekin hasiko ziren Euskal Herriko hainbat eta hainbat hezitzaile eta irakasle irailean eskolak ematen. Bokazioz lan eginez eta haurrekin gozatuz jarraituko dute. Elkarbizitza horretan aberastuz. Harreman horretan hartuz eta emanez. Zalantzarik gabe, jardun hori txalotu eta aitortu egin behar da barruko sugar hori itzal ez dadin. Bejondeizuela eta ikasturte berri on!

---

**“Aspaldidanik ezagutu ditut irakasle bikain asko, eskola liburuak eskola liburu, haurraren garapenaz, irudimen ahalmenez, jendaurrekotasunaz... arduratu eta modu eraginkorrean balio horiek transmititzen asmatzen dutenak. Gure herriaren Historia ipuinen edo kantuen bidez ikasten duen haurrari betirako iltzatuko zaizkio memorian hitzen batzuk, doinuren batzuk...”**

Andoni Egaña



## JAIOTZE TASAREN BEHERAKADA NABARITU DA IKASTURTE BERRIAN

Hasi dute ikasturte berria Euskal Herriko haur txiki eta handiek. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan 500.000 ikasle inguru arituko dira, iaz baino zertxobait gehiago. Baina beherakada zantzuak gero eta nabarmenagoak dira hasierako mailetan. Jaiotze tasa jaisten ari da urtetik urtera, eta ondorioz, matrikulazio kopuruak ere bai, batez ere Haur eta Lehen Hezkuntzan.

EAE n iaz baino % 3 ikasle gutxiago izango da Haur Hezkuntzan, eta Lehen Hezkuntzan % 2 gutxiago. Kopurutan, 1.200 ikasle gutxiago urte batetik bestera. Nafarroan ere azken urteetako matrikulazioetan jaiotze tasaren beherakada nabaritzen ari direla adierazi du Nafarroako Gobernuak. Igoera dutenak, bestalde, Seaskako ikastolak dira: iaz baino 230 ikasle gehiago izanen dituzte.

EAE n eta Nafarroan ikasturtea hasi aurretik lan eskaintza publikorako deialdia egin zuten, baina han ateratako postu guztiak ez dira bete. Hautagaiek azterketak gainditu ez, eta hutsik geratu dira irakasle postuen laurdenak: 480.



## HEZKUNTZA LEGEA EGITEKO IKASTURTEA IZANGO DA EAE-N

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Hezkuntza Legea egiteko prozesua abiatu zuen iazko ikasturtean eta jarraipena izango du aurtengoan. Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrera bidalia du oinarritzko gogoeta dokumentua eta urriaren 1ean ekin zioten dokumentua aztertzeari parlamentuko kideek. Haien gogoetak aintzat hartuta, lege proiektu bat taxutuko du Hezkuntza Sailak, eta hori izango da eztabaidagai gero.

Besteak beste, hizkuntz ereduak buruzko atal bat du lege proposamenak. Hezkuntzako hainbat eragilek gaur egungo ereduaren sistema gainditu eta murgiltzen eredu zabaltzeko eskaera egin dute.

## ESKOLA SEGREGAZIOAREN AURKAKO EKIMEN LEGEGILEAK EZ DU AURRERA JO

Zubiak Eraikiz plataformak eskola segregazioaren aurkako herri ekinaldi legegile bat aurkeztu zuen 17.000 sinadura bilduta. Eusko Jaurlaritzak eskaria tramitatzearen aurka azaldu da, esanez gai hori Hezkuntza Legean jorratuko duela, eta ez dela beharrezkoa bi lege egitea. Beraz, ezerezean geratuko da eskaria.

Ikastolen Elkartek gai honen gaineko proposamen bat egingo du udazkenean. Uste dute ikasturtea hasi eta gero eskolatutako ikasleek eragiten dutela desoreka, eskolatze batzordeek ez dituztelako ikastoletara bideratzen, publikora baizik.

## 2 URTEKO HAURREI ESKOLA GARRAIOA KENDU DIETE EAE-N

Eusko Jaurlaritzak 2015etik aplikatu gabe zegoen eskola garraioaren dekretua aplikatu du aurtengoa; ondorioz, 3 urtetik beherako haurrek debekatua izango dute eskolako autobus zerbitzua erabiltzea. Jaurlaritzak esan du segurtasunagatik hartu duela erabaki hori, autobusek ez dituztelako 2 urtekoentzako aulki egokituak eta segurtasun uhal homologatuak.

EH Bilduk, hainbat udaletako alkatek eta EHIGEk kritikatu egin dute erabakia. Gurasoen artean ezinezona eta kezka sortu du ikasturtea hasi ondoren etorri den erabakia. 2 urteko haurrek eskubide gutxiago izateaz gain, familia eta lanaren arteko kontziliazioari oztopoak jartzen dizkiola adierazi dute guztiek.



# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## SEASKAK IRAKASLE POSTUAK ESKATU ARREN HEZKUNTZA MINISTERIOAK EZ DIZKIO EMAN



Protestekin hasi dute ikasturte berria Seaskako ikastolek. Iaz baino 250 ikasle gehiago dituzte, eta “kalitatezko hezkuntza” bermatzeko 25 lanpostu berri eskatu zizkion Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioak Hezkuntza Ministerioari otsailan. Horietatik bost eta erdi bakarrik eman dizkio. Momentuz, Seaskak bere gain hartu ditu gainerako 15 postuak, jakinik ez duela baliabide ekonomikorik horiek ordaintzeko.

Irailaren lehen egunean izan ziren Seaskako irakasle eta langilez betetako lau autobus Paueko Akademia Ikuskaritzan protestan. Beltzez jantzita, ikasle motxilekin soinean eta *Kasu, ikastola kexu* mezuekin eskuan. Berrogei irakaslek ikuskaritzako harrera postuan sartzea lortu zuten. Gainerakoek kanpoan itxaron zuten. Eta bitartean, lau irakaslez osatutako ordezkaritza Pierre Barriere Pirinio Atlantikoetako akademia ikuskariarekin elkartu zen. Solasaldi pribatuaren ondoren, bi alderdiek emandako azalpenak ez ziren bat etorri. Barrierek adierazi zuen hark ezin duela lanpostu eta baliabide gehiago jarri, eta emanak direnak “zentzuzkoak” direla. Irakasle postu berriak ireki edo ez Asanblada Nazionalak erabakitzen duela erran zuen, eta aurtan ez irekitzea bozkatu zutela. Barrierek dio Seaskarekin duen akordioa errespetatu dela, eta Seaskak, berriz, ezetz. Baionako Etxepare Lizeoan pedagogia lanetan dabilen Filipe Laskaraik aditzera eman zuenez, ministerioak Seaska egitura bakar bat bezala hartzen du eta horren arabera egiten ditu kalkuluak. “Horrela, ikasle kopuru osoa irakasle kopuru osoarekin jarri du balantzan. Eta ez da bidezkoa. Ikastola batzuetan ikasle kopurua ez da jasangarria. Kasuan kasu aztertu behar dira beharrak”.

## EAE-KO ITUNPEKO IKASTETXEAK SEI GREBA EGUN DEITU DITUZTE

Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxeek grebarako deialdia egin dute. Kristau Eskolako eta IZEA taldeko ikastetxeak daude grebara deituak urriaren 9 eta 10erako eta azaroaren 27, 28, 29 eta 30erako. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako itunpeko hezkuntzaren % 70 osatzen dute. Denera 9.000 hezitzaile eta 120.000 ikasleri eragingo diete lanuzteek.

ELA, Steilas, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek sinatu dute lanuzterako deialdia. Sindikatuak iazko azaroan altxatu ziren Kristau Eskolako eta IZEAko patronalarekin osatutako negoziazio mahaitik, eta ekainean, greba deialdiaren berri eman zutenean, jada jakinarazi zuten ordutik ez dela elkarrizketarik egon. Patrolanaren “inmobilismoak” beste aukerarik ez diela utzi adierazi zuten. Lanuzteez gain, ikastetxe barruko borondatezko ekintzetan parte ez hartzeko eskatu diete sindikatuek langileei, harik eta “benetako negoziazio bat” bermatu arte eta patronalak “dagokion erantzukizuna” hartu arte.

Itunpeko eskolen lan hitzarmena duela ia hamar urtetik ez dutela berritu salatu dute sindikatuek. Digitalizazioaren eta beste berrikuntzen ardura langileen bizkar geratu dela ere adierazi dute, eta horrek lan zama “jasanezina” eragin duela. Erosteke ahalmena berreskuratzea, DBHko irakasleen soldatak berdintzea eta egoera prekarioan daudenen lan baldintzak hobetzea eskatzen dute sindikatuek.



## 0-3 ADIN TARTEKO FORMAIZIOKO LAUGARREN PROMOZIOA ERE ATERA DA

Hik Hasi egitasmoak 0-3 adin tarteko hezitzaileei zuzenduriko formazio-zikloa antolatzen du, bi urteko iraupenekoa, eta dagoeneko laugarren promozioak ere bukatu du ibilbidea. Hori ospatzeko, irailaren 15ean, bazkaria egin zuten Donostian Hik Hasi komunitateko kideek, formazio-zikloko irakasleek eta ikasleek. Bazkariaren aurretik, ekitaldi laboru batean ikasketak akreditatzen dituzten diplomak banatu zizkieten ikasleei. Besteak beste, Loris Malaguzzi italiarrak eta Emmi Pikler hungariarrak utzitako ikasgaiak jaso dituzte formazio-zikloko parte-hartzaileek.



## ELHUYARREN ZIENTZIA AZOKAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DA

Zientzia Azoka ekimena Euskal Herriko gazteek garatutako proiektuen azoka bat da, eta ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoa barrutik bizitzeko da. Zientzia hezkuntza formalaren osagarri izateko helburua du egitasmoak, oinarrizko eta zeharkako gaitasunak landuz, Ikerketan Oinarritutako Zientzia Hezkuntza metodologiaren bitartez.

DBH eta Batxilergoko 12-18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Gazteek, talde txikitik, ikerketa-proiektu bat nahiz proiektu teknologiko bat diseinatu eta garatuko dute, unibertsitateko ikertzaile profesionalen laguntzarekin.

Izena ematea doan da, eta ondoko loturan egin behar da: [zientzia-azoka.elhuyar.eus/login](http://zientzia-azoka.elhuyar.eus/login)

Informazio gehiago [zientzia-azoka.elhuyar.eus/eu](http://zientzia-azoka.elhuyar.eus/eu) gunean eskura daiteke, edota 688 683 320 telefonora deitu eta Aitziber Lasarekin hitz eginda.

## 'GURASOEI GUTUNA' IDAZLAN LABURREN LEHIAKETA EGINGO DA, SEIGARRENEZ

Beste urte batez ere "Gurasoei gutuna" idazlan laburren lehiaketa jarri du martxan Ttiklik egitasmoak. Hurrekin lanketa egiteko aukera eman nahi du: gurasoekiko harremanak, sentimenduak adieraztea, istripuen eta dolua- ren gaia... Baina gurasoak ere animatu nahi dituzte parte-hartzera, bar- neko hori atera eta idatziz islatzera. Lehiaketa honen helburua, bakoitzak bere gurasoei esan nahi dizkien hitzak gutun laburren bidez adierazteko aukera ematea da. 7 urtetik hasita muga gabeko jende guztia animatu nahi dute idaztera. 0tik 6ra bitarteko haurrek ere, marrazki bidez, gura- soei esan nahi dietena espresatzeko parada izango dute. Lanak aurkezteko epea zabalik dago azaroaren 10era arte. Informazio gehiago nahi izanez gero, [info@ttiklik.com](mailto:info@ttiklik.com)-era idatz dai- teke. Gune digital bat ere badu egitas- moak: [www.ttiklik.com](http://www.ttiklik.com) webgunean "Gurasoei gutuna" atalean.





# HIZPIDE IZANGO DA

## 'MUGIMENDUA ETA HIZKUNTZA' JARDUNALDIAK EGINGO DIRA URRIAREN 26AN BILBON ETA 27AN DONOSTIAN



Urteroko legez, 0-3ko hezitzaileentzako udazkeneroko jardunaldiak egingo dira urriaren 26an Bilboko Bizkaia Aretoan, 9:00etatik 14:00etara, eta urriaren 27an, Donostiako Barriola eraikinean 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era. Aurtengo gaia "Mugimendua eta hizkuntza" izango da.

Goizeko egitaraua berbera izango da Bilbon zein Donostian. Hasteko Xabier Tapia psikologo klinikoak *Bat bitan, bietan bat: motrizitatea eta hizkuntza* izenburupean hitzaldia emango du; ondoren, Mar Corominas logopeda kataluniarra mintzatuko da. *Hizkuntza 0-3 aldian: komunikazioa, elkarrizketa eta entzutea* izeneko hitzaldia emango du; eta azkenik Jon Arana psikomotrizistak kasu praktiko bat aurkeztu du. Amaitzeko, berriz, hiru hizlariekin mahai-ingurua egingo da. Larunbatean, Donostian, arratsaldez ere jarraipena izango du jardunaldiak. Cira Rodriguez psikomotrizista kanariarra eta Joxe Ramon Mauduit psikoterapeuta ariko dira hizlari lanetan.

Informazio gehiagorako edo izena emateko [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) helbidera jo daiteke.

## JOAQUIM RUYRA ESKOLAKO PROIEKTUA EZAGUTZAKO JARDUNALDIA, AZAROAN

Azaroaren 24an, larunbat goizez, Kataluaniko Joaquim Ruyra eskolako hezkuntza-proiektua ezagutzeko jardunaldia egingo da Donostian. Ikasleen % 92k jatorri atzerritarra izan arren, eskola onenen artean dago. Lan egiteko modu jakin bat dute arrakastarako giltza: ikas-komunitatea, hain zuzen. Gasteizko Sansomendi ikastetxeko kideak ere jardunaldian izango dira ikas-komunitatean oinarritutako euren hainbat praktika on aurkezten.

## ANIZTASUNAREN GAINEKO MONOGRAFIKOA ARGITARATU DU HIK HASI-K HUHEZI-REKIN ELKARLANEAN

"Aniztasun sozio-ekonomikoa, kulturala eta linguistikoa: PRAKTIKA ONAK" izenburupean, 33. monografikoa argitaratu du Hik Hasi egitasmo pedagogikoak HUHEZIKO ADI ikertaldearekin batera. Hik Hasi-ren webgunean dago salgai 10€an (7€an harpidedunentzat).

2016-2017 ikasturtean, "Eskola-komunitateak beren jarrera eta praktikak aztertzen: aniztasun sozioekonomikoa, kulturala eta linguistikoa" proiektua abian jarri zuen HUHEZIKO ADI ikertaldeak, Eibarko Arrateko Andra Mari eta Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxeekin batera.

Proiektu honen helburu nagusiak ondokoak dira, labur esanda: hezkuntza-komunitatearen aniztasun sozioekonomikoarekiko, kulturalarekiko eta linguistikoarekiko jarrerak aztertzea, aniztasun hori kudeatzeko praktikak analizatzea eta irakasleei praktika gogoetatsuan oinarritutako aldaketa-prozesuak gauzatzen laguntzea.

2017ko ekainean, mintegi bat antolatu zen Eskoriatzako HUHEZI fakultatean, aniztasun sozioekonomiko, kultural eta linguistiko handia zuten zenbait eskolaren praktika onak ezagutu eta partekatzeko helburuz. Mintegi honetan izandako elkarlaren eta lankidetzaren ondorio dira monografikoan jasotakoak.



Argazkiak: Elhuyar Fundazioa

Labe bat da Bizilabe, baina ez janariak prestatzeko sukaldeko labe bat. Zientzia eta teknologiarekin erlazionatutako esperimentuak egosten diren labea baizik. Eta bizia. Gazteek erabiltzen dute, eskuekin gauzak eginez eta probatuz, esperimendatuz, ikertuz, bizituz. Bizilabe Elhuyarrek gazteei eskaintzen dien espazio bat da, non gazteek zientzia eta teknologiaren mundura gerturatzeko aukera duten. Modu askean, aisialdirako leku bat dute zientzia egiteko. Elhuyarrek, Bilboko Udalaren laguntzaz, espazio horietako bat irekia du Bilbon, eta aurrerantzean Euskal Herriko eskualde gehiagotan ere irekitzeko asmoa du. Hik Hasik Bilboko Bizilabe bisitatu du eta arduradunen laguntzaz labea barrutik ezagutu du.



# GAIA: ZIENTZIAREN BIZILABE

Zientzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematika gazteen eskuetan

Zientzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematika gazteei gerturatzeko xedez sortutako egitasmoa da Bizilabe. Elhuyarrek tokian tokiko administrazioekin lankidetzan, Euskal Herrian eraiki nahi duen gazte-txoentzako ikerketa zentroen sarea da. Eskualdeka antolatu-tuta, tokiko herritarrei ekarpena egiteko, gazteen hezkuntza osatzeko eta eskualdeari lehiakortasunean laguntzeko xedea du. Gazteei, eskola orduetatik kanpo proiektugin-tzan jarduteko espazio bat eskaintzen die Bizilabek. Euskal Herrian eratu nahi duten sare hori osatzen hasiak dira eta lehen pieza da Bilboko Bizilabe. Aurten abiatu du bigarren ikasturtea. Aitziber Lasa Iglesias Elhuyarreko zientzia-hezkuntza arloko arduradunak dionez, “ideia da gaztetxoek modu askean aisialdirako espazio bat edukitzea zientzia egiteko. Espazio horretan benetako zientzialariak aurkitu dituzte, eta gazteekin egongo den hezitzaileak, iker-tzaileen laguntzarekin, gazteek beren proiektu propioak lantzea bultzatuko du, eta horretan lagunduko die. Aurkitu-tuko duten jendea edo jarduna zientzia eta teknologiarekin lotura zuzena duena izango da: dela ikertzaileak ezagutuko dituztelako tailerren bidez, dela momenturen batean inguru-ko enpresetan zertan dabilzan ikusteko aukera izango dutelako... Nolabait esateko, zientzia eta teknologiaren ikuspegi errealista, egunerokoa, benetakoa eta gizatiarra eskaini nahi zaie 10-19 urte bitarteko gazteei”.

2011. urtean hasi zen Elhuyar proiektu hau lantzen. “Antzeko zerbait ezagutu genuen Alemanian eta Euskal Herri-ra ekartzeko modukoa zela iruditu zitzaigun”, dio Elhuyar-reko zientzia-hezkuntza arloko arduradunak. “Geroztik egitasmoaren eredia lantzen aritu gara: hori nola sortu eta egokitu gurera, nola sustatu eta landu, arlo metodologikoa landu eta eguneratu... Gure helburua Euskal Herriko eskualdeetan Bizilabe espazioak eskaintzea izango litzateke. Herrietan musika eskolak dauden bezala, zientzia eskolak egotea. Hori dela-eta, zenbait eskualdetako administrazioekin eta garapen agentziekin elkarlanean hasiak gaude: Bilbon, Urola Erdian, Debarrenan... Horiei sustapen-lana eta baliabideak eskatzen dizkiegu, argi baitauekagu gazteentzat oso merkea izan behar duela, ia-ia doakoa, denek izan dezaten joateko aukera”. Administrazioez gain, eskualdeetako enpresak ere bidelagun dituzte; alde batetik babes ekonomikoa lortzeko, eta beste aldetik enpresetako aholkulariak eta profesionalak Bizilaben gazteekin aritzeko edota enpresak bisitatzea joateko. “Garrantzitsua da gazteek zuzenean ezagutzea inguruko enpresetan zer egiten den, azken finean, hori baita errealitatea eta hor aritu baitaitezke beraiek etorkizunean”, gaineratzen du Lasak. Unibertsitatearekin ere elkarlanean dabilta. Bertako ikertzaileak trebatzen dituzte gero Bizilaben gazteekin jarduteko.

## GAIA:

# ZIENTZIAREN BIZILABE

Zientzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematika gazteen eskuetan

### Zientziaren inguruko uste okerrak apurtzen

Europar hainbat eta hainbat ikerketa egin dira azken urteotan zientziaren eta gazteen bokazioaren arteko loturak aztertzeko. Hauek dira ateratako ondorioetako batzuk:

1- Zientzia eta teknologia gaiak gustuko izatea ez da nahikoa, gazteek beren buruak etorkizunean arlo horietan ikusteko.

2- Adin giltzarria 10-14 urte da. Normalean 14 urtetik aurrera egiten dira orientazio-ekintzak, unibertsitate ikasketak aukeratu aurretik. Baina lehenago hasi behar da. 14 urterako badakite zientzia gustatzen zaien ala ez eta bide horretatik joan nahi duten ala ez.

3- Zientziak ez du balio soilik zientzialari izateko. Bizitzarako beste baliabide batzuk eskuratzeko ere baliagarria da.

4- Zientziaren eta zientzialarien inguruan aurreiritzi eta uste oker asko dago: zientzialariak arraroak edo frikiak direla, notarik onenak ateratzen dituztenentzat direla ikasketa horiek, industria zikina dela... Horiek haustea oso garrantzitsua da.

5- Gazteak ahalduzko zientziaren inguruko ezagutza errealista ematea garrantzitsua da: ikustea zer proiektu dauden, zein pertsonak egiten duten lan horretan...

6- Familiaren eta ingurune sozialak eragina du: *zientzia kapitala* deritzona. Gaztearen bizitzan zenbat zientzia dagoen esan nahi du, horrek eragina duelako: gurasoren bat zientzialaria edo ingeniaria den, museoetara joan ohi den, dokumentalak ikusten dituen...

Ondorio horiez gain, bada beste elementu garrantzitsu bat: bizipenak. "Gazteen eta zientziaren arteko lotura ikusteko Europako hainbat proiektutan parte hartu dugu eta horie-

tako batean, Stimula proiektuan, ondorioztatu zen bizipenek eragin handia dutela gerorako gure autopertzepzioan: zer izan nahi dudan, zer egin nahi dudan, zenbat zientzialari ezagutzen ditudan, non egiten duten lan, zertan dabil-tzan...". Bizipenek ematen dute hori dena argitzeko aukera, eta batez ere bizipen luzeek, ez ekintza solteek. Horregatik da Bizilaberen ezaugarri nagusietako bat bizipen luzeak eskaintzea. "Guk gazteei zientzia bizipenak eragin nahi dizkiegu, zientzia bokazioa piztu komunitatearen inplikazioarekin".

Hori bideratzeko, Bizilabek hiru tresna darabiltza:

- **Izan asmatzaile edo ikertzaile proiektugintza:** jardun jarraitu bat eskaintzen zaie gazteei ikasturte osoan. Astean behin ikerketa edo asmatzaile lanak egitera joan daitezke, euren gogoz, eurek nahi duten gaiaren inguruan. Hasieran gauza desberdinak egiten dituzte, probatu eta ezagutu. Eta behin ideia bat dutenean, zientzia proiektu bat garatzen dute. Zientzialarien laguntza izaten dute prozesu osoan zehar.

- **Tailer zehatzak:** ikertzaile gazteek hainbat gairen inguruan eskaintzen dituzten tailerrak dira. Sei saiokoak izan ohi dira. Tailerren helburua inspirazio iturri izatea da.

- **Komunitatea eraikitze harreman bizipenak:** zientziaren inguruko komunitatea eraikitzea garrantzitsutzat jotzen dutenez, hainbat ekintza egiten dituzte harreman bizipen horiek edukitzeko. Esate baterako, zientzia proiektuak erakusteko azokak, familian eta lagunartean bizitzeko ihes-gelak, enpresetara bisitak, herriko elkarteekin batera ekintzak eta abar.





# Elena Sevillano: “Informaziorik ez badugu, erraz manipulatzeko gaituzte”

**E**HUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean irakasle lanetan dihardu Elena Sevillanok, Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia Sailean. Gerora mediku izango diren ikasleak pasatzen dira bere eskuetatik, eta garbi dauka ikerkuntzan aritzeko beldurra uxatu eta grina piztu behar zaiela. Horregatik, ikerketa-proiektuak eginarazten dizkie ikasleei. Ikertzea zer den bizitzen dute. Eta hor dago gakoa. Horrek zientziara eta ikerkuntzara asko gerturazten dituela dio. Helburu horrekin berarekin kolaboratzen du Bilboko Bizilaben. Ikerlari eta aditu gisa gazteei laguntzen dihardu.

## Zein da gizarteak zientziarekiko duen jarrera?

Alde batetik, zerbait harrigarria bezala ikusten dugu. Baina, beste aldetik, beldurra ematen digu. Egunkari guztietan belarri bat klonatuta duen sagu baten argazkia ateratzen denean, harridura eta beldurra eragiten ditu; “hori egiten badute, zer ez dute egingo!”. Garrantzitsua da miresmenaren eta beldurraren arteko oreka bilatzea.

## Zerk sortzen du desoreka?

Ezjakintasunak. Nik uste dut oso garrantzitsua dela txikitatik hasiera hezkuntza-zientifikoa baloratzen. Bestela, informaziorik ez baldin badaukagu, oso erraz manipulatzeko gaituzte.

## Zer egin daiteke hezkuntza-zientifikoa lantzeko?

Txikitatik hasi. Umeek ikertzaileen ezaugarriak dituzte: interesa daukate haien inguruan gertatzen dena aztertzeko, behatzaile oso onak dira eta esperimenduak egitea gustatzen zaie. Eta beste gauza garrantzitsua bat, adinarekin galtzen joaten dena: ez daukate galdetzeko beldurrik. Dena galdetzen dute, dena jakin nahi dute. Hortaz, ume guztiak dira ikertzaileak.

## Gero, urteekin, interes hori galtzen joaten da. Zer egin daiteke interes hori mantentzeko eta zientziari beldurra kentzeko?

Zientzia egin, esperimenduak egin. Praktikatu lortuko dugu zientziari beldurra kentzea. Bokazio zientifikoak sustatzeko ekintzak behar ditugu, bai ikastetxeetan bai ikastetxeetatik at. Bizilabe bezalako aukera egotea oso garrantzitsua da bokazio zientifikoa sustatzeko eta zer gauza egin daitezkeen ikusteko. Hezkuntza arautuari dagokionez,

metodologia aldatu behar da. 10 urtetik gorako ikasle askok Zientzietako ikasgaiak aspergarriak, alferrikakoak eta zailak direla diote, eta gainera, ez dute erlaziorik ikusten ikasgai horien eta errealitatearen artean. Hori normala da ikasgai horiek nola planteatzen diren ikusita. Horregatik diot metodologia aldatu behar dugula; proiektuak landuz askoz hobeto ikusiko dute lotura hori.

## Zuk, unibertsitatean eskolak ematerakoan, zer eta nola planteatzen duzu?

Ikerketa proiektua deituriko ikasgai bat daukagu 3. mailan eta ikerketa proiektu bat egin behar dute hasieratik bukararaino: zer ikertu erabaki, proiektua idatzi, finantziarioa lortu, materiala lortu, esperimenduak egin, emaitzak aztertu eta bukaeran egiten dugun kongresu baterako aurkezpena prestatu. Sorpresak hartu izan ditugu, oso proiektu interesgarriak eta denetariakoak agertzen direlako. Esate baterako, talde batek *piercing* asko egiten direla eta sarritan infektatu egiten direla ikusita, hori ikertzea erabaki zuen; alegia, infektatzen bada zer mikroorganismo den identifikatu eta desinfektatzeko teknika desberdinak probatu.

## Alderik nabaritzen al duzue proiektua egin aurretik eta ondoren?

Bai. Ikasturte hasieran galdetegi bat pasatzen diegu ikertzea gustatzen al zaien galdetuz. Interesa baduten arren ez dakitela nola egin erantzuten dute. Beraien bizitza profesionalean ikerketa proiektuak garatuko al dituzten galdetean, gehienek ezetz diote. Eta hori oso kezagarria da. Gero eta mediku gutxiago inplikatzeko dira ikerketa desberdinetan, eta gizarteak aurrera egiteko garrantzitsua da ikerketa proiektuak egitea. Ikasturte amaieran, behin proiektua egin ondoren, “orain interesik ba al duzue ikerkuntzan?” galdetzen diegu. Eta baietz esaten dute. Badakite nola ikertzen den, beldurra galtzen diote ikertzeari eta beraien bizitza profesionalean ikertuko dutela esaten dute.

## Eta Bizilaben, zer egin izan duzu gazteeekin?

Mikrobiologia tailerra egin genuen. Tailerrek grina sortzeko aukera ematen dute. Ate bat irekitzen zaie gazteei eta gero beste ate bat irekitzeko aukera ematen die horrek. Gauza berriak probatzen dituzte: laginak hartu eta mikroskopioan aztertu, probatu... eta beldurra galtzen dute. Dena da berria eta erakargarria.

GAIA:

## ZIENTZIAREN BIZILABE

Zientzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematika gazteen eskuetan

# Bilboko Bizilabe

**B**izilabe egitasmoaren lehen kumea da Bilboko. 2017ko urrian ireki zituen ateak Deustuko Udaltegian, Gaztelekuarekin espazioa partekatuta, eta Bilboko Udalaren eta Bilbao Ekintzaren babespean. Zientzia-bizipenentarako egokitu zuten espazioa eta ikasturte honetan labea berotzen joango da. Ireñe Barrena Molina koordinatzailea izango da horren lekuko gazteekin batera.

Bilboko Bizilabek 12-17 urte bitarteko gazteei luzatzen die eskaintza, nahiz eta aurrera begira adin tarte hori zabaltzeko aukera ikusten duten. Alde batetik, ikasturte osoko iraupena duten proiektugintzako saioak dituzte, *Izan asmatzaile edo ikertzaile* deiturikoak. Ireñe Barrena koordinatzaileak azaltzen duenez, “astean behin ordu eta erdiko saioak izaten dira. Astelehenetik asteazkenera eskaintzen ditugu, egun bakoitzean bi talde: bata 12-14 urteko gazteena eta bestea 15-17 urtekoena. Saio horietan probatzeko eta ikertzeko aukera dute, euren bokazioa topatzeko gauza desberdinak eginez, asmatuz... Gaur hau, hurrengo asteen beste gauza bat, hurrengoan beste bat... Bakoitzak ikus dezan zertan sentitzen den eroso eta zer gustatzen zaion. Eta behin zerbait gustatuz gero, horren inguruko zientzia proiektu bat egiteko aukera dute. Batzuk biologiako gauzak aztertu eta ikertzen dituzte mikroskopioekin, DNAk eta horrelakoak aztertuz. Beste batzuk bideo-jokoak programatzen dituzte edo, hiru dimentsiotako inprimagailuak

erabiliz, aldeztatik horretarako prestatuta dagoen teknologiarekin programazioak eta marrazkiak egiten dituzte”. Saio horiez gain, ostegunetan tailer zehatzak eskaintzen dituzte. Esate baterako, kriptografiari buruzkoa, mikrobiologiaren ingurukoa, slime tailerra polimeroekin eta kimikaren inguruko gaiekin... “Sei saioko iraupena duten tailerrak dira eta 6. egunean gaiarekin lotutako enpresa batera joaten gara”, gaineratzen du Barrenak.

Udazkeneko larunbatetan, ostera, familiei eta publiko zabalari irekiko dizkie ateak Bilboko Bizilabek. “Zientziaren inguruko komunitatea sortzea garrantzitsua ikusten dugunez, hori bideratzeko ekintzak egiten ditugu”, azal-tzen du Barrenak. “Azaroaren 17ra arte ihes-gela edo escape-room bat eskainiko dugu 7 urtetik gorakoentzat. Familian edo lagunekin etortzeko aukera dago. 50 minututan talde bakoitzak zientzia-misio bat eraman beharko aurrera. Horretarako, hainbat kode deszifratu beharko dituzte, pistak lortuz gelatik ateratzea lortu arte. Kode horiek asmatzeko matematika lantzen da eta talde lana eta sormena ere garrantzitsuak dira”. Bizilabeko eskaintzen informazio osatua [www.bizilabe.elhuyar.eus](http://www.bizilabe.elhuyar.eus) webgunean topa daiteke.

### Hutsuneak betetzen ditu, dagoena osatu

Zientzia eta teknologiaren eremua oso zabala da, eta gazte askok ez dute jakiten zer den zehazki gustatzen zaiena. Be-





## GAIA: ZIENTZIAREN BIZILABE



Irene Barrena Molina Bilboko Bizilabeko koordinatzailea eta Aitziber Lasa Iglesias Elhuyarreko zientzia-hezkuntza arloko arduraduna.

raien kabuz, beraien eskuekin, ukituz, probatuz... ezagutze-ko aukera ematen du Bizilabek. “Ikastetxeetan ez dagoen ikuspegia eskaintzen dugu guk, askeagoa. Gazteak eurei interesatzen zaien horretatik abiatzen dira, ez irakasleak esandako proiektu batetik”, azaltzen du Bilboko Bizilabeko koordinatzailea. “Eta haiek haien eskuz sortzea... hori izugarria da! Zentzu horretan hezkuntza arautuaren osagarri izango litzateke Bizilabe. Ikastetxeetan mila gauza ikasten dira, baina praktikarako edo sorkuntzarako espazioa faltan botatzen dute gazteek. Hemen lehen egunetik hasten gara eskulan sinple bat egiten eta denak sentitzen dira arkitekto. ‘Nire eskuekin egin dut’ esatean, beren burua gai sentitzean dute. Horrek autonomia lantzeko aukera handia ematen die”. Iritzi berekoa da Aitziber Lasa Elhuyarreko hezkuntza arduraduna ere. “Zientzia azoketan parte hartzen duten gazteekin atzerrira joatea tokatu zaigunean, beraiek antolatu izan dute dena: trena edo hegazkina hartzea komeni zaien, ordutegiak... Gazte horien autonomia eta ahalduak bilatzen dugu eta ikusgarria da zelako jarrera izaten duten! Oso polita da gaitasun pila bat lantzen dituztela ikustea: hizkuntzak, harremanak, aurkezpena...”. Barrenak gehitzen du atzerrira joan gabe ere, hemen, Bizilaben aurrera eramaten dituzten prozesuetan ere gaitasun asko lantzen direla: “Programatzen hasten direnean eta ingelesez dagoela konturatzen direnean, beraiek ere ingelesez egiten dute”.

### Zientzialariak lagun

Teknologian eta zientzian oinarritutako proiektuak izaten dira guztiak, helburua gazteak arlo horretara gerturatzea baita. Eta Irene Barrenarekin batera beste zientzialari bat izaten dute laguntzaile. “Bi profilak iruditzen zaizkigu garrantzitsuak: ikertzailearena eta hezitzailearena. Gaiaren aldetik ikertzaileen laguntza edukitzea oso interesgarria da. Baina, horrez gain, gazteekin ari garela eta talde lanean

aritzen garela kontuan izanda, hezitzailearen lana ere garrantzitsua da”, dio Barrenak.

Bizilaben parte hartzen duten zientzialari profesionalak hala unibertsitatean ikertzen ari direnak nola enpresetan lanean dabilzanak dira. “Zientzia eta teknologiaren ikuspegi erreala, egunerokoa eta gertukoa eman nahi baldin badugu, zientzialariak hemen egotea eta gazteek eurekin harremana izatea funtsezkoa da”, dio Barrenak. “Haien laguntza izateaz gain, konturatuko dira pertsona normalak direla eta hainbat uste eta estereotipo hausteko balioko die”. Izan ere, estereotipo asko daude zientzia diziplinaren eta zientzialarien inguruan: ‘nik ez dut nire burua ikusten’, ‘ez naiz gai sentitzen’, ‘denak argiak eta azkarrak dira eta ni ez’... “Hori dena apurtzeko beharra dago. Horregatik esaten diegu ikertzaileei kontatzeko hasieratik zenbat aldiz errepikatu duten ez zekitelara zer ikasi, zer bidezidor egin duten eta abar”, gaineratzen du Lasak. “Garrantzitsua da gazteek ‘ez dakit’ entzutea zientzialari bati edo irakasle bati. ‘Ez dakit, baina nik horrela bilatuko nuke’. Zeren inork ez daki dena. Besteak gu baino argiagoak direla uste dugu, eta ez da hala. Metodoa da daukatena, baina argiagoak ez dira. Oso garrantzitsua da uste horiek apurtzea eta gu ere zintzoak izatea gazteekin”.

Behin hori onartuta, lan egitea askoz errazagoa dela aipatzen du Lasak. “Irakasleei kosta egiten zaie beraiek kontrolatzen ez duten zerbaiten inguruan gazteak lanean jartzea. Eta kuriozoso da, baina horretan gehien ausartzen diren irakasleak ‘nik ez dakit’ esaten dutenak dira. ‘Nik ez dakit, bilatu zuk, lagunduko dizut, animatuko zaitut. Metodoan lagunduko dizut, baina edukian zuk iritsi behar duzu’. Hori esatean, irakasleak lasaitu egiten dira eta ikasleek ausardia eta konfiantza hartzen dituzte eta proiekturik onenak hortik sortzen dira”.



“Euskal kulturaren transmisioaren etena hain sakona izan da, hezkuntzan ere transmisio lan hori egingo duenak ez duela horretarako gaitasunik. Eta ez da baliabiderik jarri, ez da kontzientziarik egon”

# ELKARRIZKETA: IRATXE RETOLAZA

---

## EHU-KO HIZKUNTZA ETA KOMUNIKAZIO SAILEKO IRAKASLEA

EHUren Udako Ikastaroen barruan, 'Herri hezitzaileak eta kulturgintzaren transmisioa Euskal Herrian' ikastaroa antolatu zuen Azpeitiko Udalak. Horren baitan, Iratxe Retolaza EHUko irakasleak kultur sorkuntzaren transmisioaz gogoeta egin zuen. Honen ustez, kultura hizkuntza normalizazioaren zerbitzura jarri da, hizkuntza jabetzarako tresna gisa ulertu da. Baina euskalduntzea erabatekoa izateko, ezinbestekoa deritzo kulturaren

transmisioa bermatzeari, kulturak erreferentzia sareak eraiki eta munduari begiratzeko kodeak sortzen baititu, eta, horrenbestez, taldea eraikitzen baitu. Hezkuntza-sistemak ere, kulturaren transmisiorako bitartekari garrantzitsu izan beharko lukeenak, egiteko horretan hutsune nabarmenak dituelakoan dago Retolaza, eta eskoletan kultura-planak sustatzeko eta euskal kultura zehar-lerro bilakatzeko beharra ikusten du.





**Jardunaldietan nabarmendu zenuen kulturaren transmisioak kultur ohi-turak eta harreman ereduak sortzen dituela. Finean, beraz, nortasun komun bat sortzen laguntzen du, komunitate bat eratzen. Hala, kulturak zer ematen digu norbanako gisa eta herri bezala?**

Argitu nahi dut kulturaz hitz egitean, sormenaren kulturaz hitz egingo dudala, kultura modu askotara erabili izan baita. Sormenaren kulturaren sartzen dira literatura, musika, dantza, antzerkia eta gainerako, esan dezagun, arteari loturiko kultur esparruak. Kultur bide horiek beti eraikitzen dute komunikazio esparru bat, eta, gainera, erreferentzia sare batzuk eraikitzen dituzte. Sare horien bidez, jende talde batek munduari begiratzeko erreferentzia jakin batzuk izatea lortzen da. Azken batean munduan egoteko eta munduari begiratzeko kode antzeko batzuk dira, eta beraz, taldea sortzen dute. Horrekin batera, pertsona bezala gu geu munduan kokatzeko baliabideak ematen dizkigu kulturak: baliabideak besteekin komunikatzeko aurrez aurre gaudenean, baliabideak zentzuaren eraikuntzan, barne mundua elikatzerakoan,

trukea sustatzerakoan, sormenarekin jolasteko...

Kulturak munduaren inguruko errepresentazioa bat egiten du, eta oro har, esaten da kulturak hiru bide erabiltzen dituela munduari buruz hitz egiteko, edo gure egunerokoaz, gutaz hitz egiteko. Bata da errealtatearen nolabaiteko erradiografia egitea eta, beraz, ikusgarri egitea gertatzen den hori baina eguneroko abiadan agian ikusezin bilakatzen dena. Orduan, ez du errealtatea eraldatu nahi, baizik eta errealtatearen alderdi bat ikusgarri egin. Beste bide bat egunerokoaren kritika egitea da; kasu honetan helburua ez da ikusgarri egitea bakarrik, baizik eta jada badu interpretazioa, jendea ernarazteko kritika bat. Eta badu hirugarren bide bat, oso garrantzitsua: irudimenarena. Sormenak mundu posibleak sortzen ditu, eta neurri horretan gure barnean ere harremanak egiteko modu posibleak pentsa ditzakegu, gureak ez direnak eta ikusi ere egin ez ditugunak, gizartea eraikitzeke modu posibleak...

Beraz, bai pertsona bezala bai komunitate bezala ematen dizkigu aukerak ez bakarrik gure gaurkoari patxadaz begiratzeko eta kritikoki

irakurtzeko, ez bada etorkizunari begira ere aukera posibleak irudikatzeke. Baina gaur egun sormenaren eta kulturaren ikuspegi hori baztertu da dezente, eta ez bakarrik gurean. Lehen hezkuntzan askoz ere espazio gehiago zuen, ulertzen zelako nolabait pertsona bat elikatzen zuela kulturak, bizirauteko baliabideak ematen zizkiola. Baina gaur egun oso bazterrekoa da, beste lehentasun batzuk daude; kulturak ez du sortzen benefiziorik ekoizpen ikuspegi ekonomiko batetik, eta orduan bazterrean dago. Eta nire ustez kultura da, hain zuen, gizartea eraldatzeko muin nagusienetako bat. Beraz, kultur sormenak badu garrantzia, komunitateak eraikitzeke erreferentzia eta komunikazio sareak eraikitzen dituelako.

**Nolakoa izan da euskal kulturaren transmisioa? Zein bereizgarri ditu?**

Euskararen eta euskal kulturaren transmisioak duen bereizgarri nagusia da etenak izan dituela, nahiko ziklikoak, gainera. Horrek baldintzatu du transmisioa, zeren eta frankismo osterarte ez da egon instituzio iraunkorrik, ez eta eskola eredu iraunkor bat. Egia da lan

handia egin dela, baina borondatez, herrigintzatik sortutako espazioetan.

Bestalde, eten mota desberdinak izan dira. Adibidez, nire familian etena egon zen: nire amonaren bidetik guk euskara jaso beharko genuke, baina frankismoaren testuinguruan galdu egin zuen eta gure gurasoak ez dira euskaldunak, eta gu, hiru ahizpak, ikastolan euskaldundu ginen. Garai hartan, 70eko hamarkadaren bukaeran, berreskuratze lan horretan kontzientzia handia zegoen, euskal kultura ere sortzen ari zen, eta guk euskararekin batera kultur esparru ikaragarri bat jaso genuen. Ikastolan ez genuen hizkuntza bakarrik jaso, kultur esparru oso bat ere jaso genuen. Garai hartan eskolak funtzio hori bete zuen, baina gaur egun, D eredu badagoenez eta euskarazko adarra badagoenez, salbuespenak salbuespen, iruditzen zait nolabait euskalduntzearekin konformatu garela, eta euskalduntzea hizkuntza jakitea dela ulertu dugula. Eta nik argi dut ni ez nintzela euskaldundu hizkuntzagatik bakarrik, euskaldundu nintzela kultur zaletu ere nindutelako, euskal kulturara hurbilarazi nindutelako ikastolan. Nik badakit nire hizkuntza gaitasuna ez zela berdina izango kultur zaletu ez banintz, testuinguru soziolinguistiko jakin batean bizi garelako. Nik ez nuen lortu euskaraz amets egitea berandu arte, 21 urte arte, jada euskal filologia ikasten ari nintzenean. Euskaraz hitz egiteko gai nintzen, baina kulturen erabat murgildu arte ez nintzen gai izan %100 euskaldun izateko, ametsak ere euskaraz egiteko. Barne mundua elikatzeke erabiltzen dugu kultura, eta euskarazko kultura transmititzen ez bada, euskalduntzea ere ez da erabateko izango.

Beraz, lehen bereizgarria etenarena litzateke, bigarrena testuinguru soziolinguistikoarena, eta hirugarren ezaugarria da kultura hizkuntzaren zerbitzura jarri dela. Hizkuntza jabeakuntzarako tresna bezala erabili izan da, eta ez berez komunikazio jakin bat sortzen duen bide bezala, ez bada hizkuntza ikasteko. Miren Azkaratek berak esan zuen *Berria*-n kultur kontsumoa suspertzeko bidea

euskararen kale-erabilera sustatzea zela, Euskaraldiari erreferentzia eginda; alegia, euskaraz aritzeko erraztasuna garatzeak ekarriko duela kulturara hurbiltzea. Nik uste hori oso logika okerra dela, badirudielako “euskararen erabilera” esparrutik kanpo kokatzen dela kultura, hizkuntza-trebatzea kale-erabilerarekin berdintzen dela. Iruditzen zait alderantzizkoa gertatu ohi dela, alegia, gaitasuna hartzen duzula ahalegina eskatzen zaizunean, kultur adierazpide berrietarako ateak zabaltzen zaizkizunean, eta abar. Eta ez bakarrik gehiago kostatzen zaizulako, interesa piztuko zaizulako geroz eta mundu kultural aberatsagoak eskainita, erakargarriagoa egingo zaizulako. Euskararen aurrera begirako urratsak emateari, hizkuntzari, sekulako garrantzia eman zaio, eta ulergarria ere bada, baina horren ondorioz askotan, batez ere administrazioak kultura asmoak egin dituztenean, euskalduntzeari begira izan da askotan, ez kultur zaletasuna sustatzeari begira. Horrek ekarri du, kultur zalea bazara, agian ez zaizula interesatzen hori, zeren oso ikuspegi didaktiko edo murriztatutako dago eginda. Eta euskaltzalea bazara, eta ordu arte ez bazara kultur-zaletu, agian horrek ere ez zaitu kulturazaletu.

Hirugarren bide horren ondorioz, ikaragarriak dira gaur egun hizkuntzan trebatzeko baliabideak, baina ez dago kulturen trebatzeko kasik baliabiderik; ez dago sare bat erakita horretarako. Eta kontuan hartu behar da gurean etenak egon direla eta, beraz, herritar asko ez direla trebatu euskal kulturen. Bada, bertso eskolen bidetik, kultur eskolaren irudia datorrit burura. Bertso eskolen formatuak oso ondo funtzionatu du, sareak sortu dituztelako eskola arautuan, eskola araututik kanpo, eta trebatu daiteke gazte bat nahiz heldu bat. Oso ondo erakutsi dute bidea eta formatu egoki bat izan daiteke gure etenari erantzuteko.

#### **Eten horrek hezkuntzan ere izango zuen isla.**

Azkenean etena hain sakona denean, horrek esan nahi du hezkuntzan ere

“70eko hamarkadaren bukaeran, ikastolan ez genuen hizkuntza bakarrik jaso, kultur esparru oso bat jaso genuen. Gaur egun, D eredu badagoenez, iruditzen zait euskalduntzearekin konformatu garela, eta euskalduntzea hizkuntza jakitea dela ulertu dugula”

“Ez dago euskal kulturen trebatzeko kasik baliabiderik, eta kontuan hartu behar da gurean etenak egon direla eta, beraz, herritar asko ez direla trebatu euskal kulturen”

“Ez da kontuan hartu irakasle bat kultur eragilea dela, edozein irakasle zeharka beti kultur eredu bat ari dela transmititzen”



transmisio lan hori egingo duenak ez daukara gaitasunik. Eta horretan ez da baliabiderik jarri. Baliabi-deak jarri dira irakasleak euskara batuaren arauetan eta hizkuntzan trebatzeko, baina ez da jarri baliabiderik, adibidez, historia irakasle batek jakin dezan euskal kulturako zein baliabide erabil ditzakeen irakasteko, zein erreferentzia, kantu edo pelikula... ez da egin horrelako lanik, ez delako horren kontzientziarik egon. Hizkuntza garrantzitsua da, noski, pentsamendua eraikitzeko tresna bat baita, baina inportantea da baita ere hizkuntza horren bitartez zein kultur erreferentzia eraikitzen dituzun. Eta gurean hizkuntza gaitasunari garrantzia eman zaio, baina ez kultur komunitateari. Ez da kontuan hartu irakasle bat kultur eragile bat dela, edozein irakasle zeharka beti kultur eredu bat ari dela transmititzen.

Eta nik uste gaur egun euskalduntzean daukagun erronka handiena kultura dela. Azken batean, euskara biziko da baldin eta kultur komunitatea eta hiztun komunita-

tea trinkotzen badira, ez jendeak euskara jakite hutsagatik. Nik uste horren kontzientzia galdu egin dela, 60ko hamarkadan oso garbi zegoena, kulturak suspertuko zuela hitzuna, alegia. Zeren eta azken batean ez dugu euskara suspertu behar, hitzuna baizik. Hala, euskalduntzea indartsuagoa izango da agian kultur transmisioa bermatuz. Hori gabe, nire esperientziatik eta ikusita, gainera, gaur egun orduan ez zegoen globalizazio bat dagoela, ez dut ikusten arrazoirik norbaitek euskalduntzeko hautua egiteko, ez bada mundu sinboliko bat dagoela, afektibitate sare bat, erreferentzia sare bat, modu zehatz batera bizitzeko aukera ematen dizuna, eta gustatzen zaizuna.

Kultur politika birpentsatu behar da ze euskal kulturgintza euskalgintzari eta euskararen normalizazioari begirako ikuspegitik landu da. Jakin aldizkarian Arantxa Iturbek esandakoa datorkit gogora: "Euskaraz delako bakarrik irakurtzeak, euskaraz delako bakarrik entzuteak, ez du kultura nahia hazten, euskara nahia

baizik". Eta, azken batean, guk nahi dugu jendeak kultur nahi hori izatea. Eta gero, noski, nahi hori euskaraz asetzea, hori delako gure adierazteko modua.

### **Zer egin dezake eskolak, hezkuntza-sistemak, kulturaren transmisioan, eta zer egiten du egun?**

Gaur egun ez dago ikasgairik euskal kultura lantzeko, ez dago jasota ez EAeko hezkuntza dekretuan ez Nafarroakoan. Bietan ere ikasgai bakarra dago espresuki euskal kulturaren adarren bat lantzeko: Euskara eta Literatura ikasgaia, hain zuzen, Bigarren Hezkuntzan bederen. Beste adinetan arte ikasgaiak eta gisakoak badaude, baina ez daude espresuki euskal kulturara ekarrita. Hori ez litzateke arazo izango baldin eta euskal kultura zehar-lerro bilakatuko balitz, hau da, Historia ikasgaien gai zehatz bat lantzen dutenean pelikula jakin hura ikusiko balute; edo Natura ikasgaien hau lantzean abesti hori entzungo balute... Berez euskal kulturako ikasgai bat ez egotea ez litzateke arazo, baldin eta zehar-lerro balitz, eta EAeko hezkuntza curriculumak hala beharko lukeela dio, gainera. Baina ez da, inolaz ere. Eta euskal kultura lantzen denean, Literatura ikasgaien kasu, gehiengotan idazlearen biografia eta liburu-zerrenda transmititu ohi da, besterik gabe. Alegia, ez da kultur esperientzia kolektibo bat sortzen. Kultur presentziak elikatzen dira, hau da, idazlearen, antzezlearen presentzia elikatzen da. Gehienera jota berarekin hitz egiten dute, edo bere elkarriketaren bat irakurtzen dute, edo bere biografiaren berri ematen zaie, baina gure harridurarako, testuetara oso gutxi jotzen dute. Irakurtzekotan, etxean irakurtzen dute liburu bat, gero azterketa edo lan bat egiteko. Amaia Serrano eta biok lanean aritu gara literaturaren irakaskuntzaren inguruan irakasle batzuekin, eta hori da ikusi duguna; Idurre Alonso horren inguruko ikerketak egin ditu, eta hark ere ikusi du literatura eskolan lantzeko bide orokorra bibliografiaren inguruko informazioa lantzea dela, eta irakurtzekotan etxean irakurtzea. Beraz, ez dago



irakurketa partekatzeke esparrurik, ez da halakorik sortzen; kultur esperientzia partekatu horiek ez dira egituratzen eskolan. Eta kultur esperientzia horiek dira balio digutenak, ikasleen artean esateko ‘liburu honek balio izan dit nire egoera ulertzeko’, beraien artean elkarrizketak sortzeko, elkar ezagutzeko, beraien buruaz hitz egiten ikasteko, komunikatzen ikasteko, eztabaidatzen ikasteko... Eta horrekin batera sortzen ditu kultur erritualak, non ohartzen zaren komunitatean kulturari buruz hitz egiteak ekarpen batzuk egiten dizkizula. Alegia, kultura ez dela bakarrik banakakoa. Horrekin batera, kultur interpretazioaren alderdia ere galdu egiten da. Amaia Serranok eta biok esaten dugu, ez dela gauza bera irakurtzea edo literatura irakurtzea. Kultur komunikazioan norbait trebatzen ari zarenean, ez diozu irakurtzen irakatsi behar, baizik eta literatura irakurtzen, edo musika entzuten, edo antzerkia ikusten, edo... Guk diogu testuetatik abiatu behar dela, agian egilea nor den jakin gabe ere, testu horrek sortzen dituen gaien, sentsazioen, susmoen inguruan hitz egin behar dela taldean eta hor sortzen dela kultur esperientzia. Azken batean, kultur testu bakoitzak interpretazio bakoitzean bizirauten duelako; ez badago interpretaziorik kultura hilda dago. Kultura bizirik egoteko, irakurle adina interpretazio egon behar dira.

Niretzako batez ere hori da eskolak oker egin duena. Askotan esaten da, kezka, ‘nire ikasleek ez dakite nor den Mikel Laboa’, eta ni horrek ez nau kezkatzen, baina arduratzen nau ‘Izarren hautsa’ jarri eta hori ez ezagun egitea ikasleei. Batzuetan agian ez dakizu kultur lan bat norena den, baina sentimendu bat sortu dizu, komunitatearekiko lotura bat... Eta guk beste bidea egin dugu: egilea ikasarazi, baina haiekiko loturarik sortu gabe, eta orduan ahaztu egiten dituzte. Aldiz, beraiengan arrastoren bat utz dezaketen kultur esperientziak ez ditugu hainbeste landu. Beraz, hezkuntzaren aldetik literaturaz besteko kultur sorkuntza guztiak hedatzeko premia dago, eta

gero, hedatzen denean, Literaturaren kasuan bezala, kultur interpretazioetan edo kultura hartzaile bezala trebatzeko beharra.

**Hezkuntza arautuan, kulturaren transmisioan sustatuko duten material didaktikoak eta baliabideak sortzeko, euskal kultura zehar-lerro bihurtzeko nahiz kultur planak sustatzeko beharra aipatu duzu. Non gaude helburu horrekiko?**

Oso urrun. Kontziente naiz azken biak, hau da, euskal kultura zehar-lerro bihurtzea eta kultur planak sustatzea erronka potoloak direla, baliabide asko eskatzen dutela. Nahiz eta curriculumak hala egin behar dela aipatzen duen, administrazioak badu ardura hori egiteko. Dena dela, egia da hori eskola guztietan martxan jartzea oso zaila dela. Hala ere, iruditzen zait etorkizunera begira ibilbide bat zehaztu behar dugula, egoera aproposena zein den pentsatuz, eta urratsak ematen hasi eskola zehatzetan. Horren inguruko balorazioak egin eta urtez urte hobetzen eta esparruak hartzen joan behar dugu.

Material didaktikoak eta baliabideak sortzea egingarriagoa iruditzen zait, baina ez da horrelakorik egin euskal kulturaren trebatzeko, eta literaturan ere oso gutxi. Hizkuntzaren irakaskuntzarako material asko dago, baina literaturaren irakaskuntzarako ez hainbeste, kenduta betiko argitaletxeek egiten dituztenak. Gogora dator kit Katalunian duten ikaragarriko sare bat, irakasleentzako materiala sortzen duen gune bat, bai kulturaren eta bai literaturaren. Bigarren Hezkuntzan nahiz unibertsitatean aritzen diren irakasleak daude gune horretan, eta elkarrekin sortzen dituzte materialak, gero sarean jartzeko. Beraz, lehenengo urratsa behintzat, oso egingarria da: azken batean, material didaktiko batzuk sortuta eta sarean eskegita, abiapuntu bat jarri duzu. Gero, agian formazio saioak eta abarrak egin daitezke material horren erabilera hobetze aldera, baina printzipioz egin zitekeen horrelako zerbait oso baliabide gutxirekin, administrazioak jada badituen langileekin.

“Eskolak ez du egiturarik sortzen kultur esperientziak partekatzeke, eta horiek dira ikasleei balio dietenak beraien artean elkarrizketak sortzeko, elkar ezagutzeko, beraien buruaz hitz egiten ikasteko, komunikatzen nahiz eztabaidatzen ikasteko...”

“Hezkidetzaren planak sustatu diren modura, kultura planak sustatu daitezke, eskola bakoitzaren beharretara eta testuinguru sozio-kulturalera egokituta. Dauden baliabideak pixka bat hobetuta, kontratazio modu batzuk aldatuta, plan horiek osatzeko aukera egon daiteke”



Bide horretan Nafarroan Gobernuaren barruan dagoen EIBZk, Euskarraren Irakaskuntzarako Baliabideen Zentroak abiatu du halako proiektu bat: harremanetan jarri dituzte idazleak, irakurleak eta irakasleak, eta literatur zerrendak osatu dituzte adin bakoitzerako egokiak izan daitezkeen liburuekin. Aurten Amaia Serrano eta biok aritu gara horretan, baita idazleak eta literatura irakasbide duten beste batzuk ere, hala nola Patxi Zubizarreta, Xabier Etxaniz, Mari Jose Olaziregi eta beste batzuk. Hori ondo dago, baina batez ere beste alderdi bat iruditzen zait niri interesgarria: aipaturiko horiei eskatu diete liburu batzuen inguruan material didaktikoa egitea. Material hori irakasle batzuei aurkeztu diete, irakasle horiek eskoletan erabili dute material hori, eta ondoren berriro gurekin elkartu dira, eta esan digute zer izan den baliagarri eta zer ez. Horrekin material hori egokitu eta plataforma batean eskuragarri jarri dute. Ikusi dute Nafarroan bazutela horren beharra literatura hobeto lantzeko, nahiko gauza egingarria izan da dauden baliabideekin, eta ikaragarri ondo kudeatu dute.

Beraz, lehen erronka edo urratsa, materiala sortzearena, nahiko

egingarria iruditzen zait. Eta beste bi erronkak horren emaitza izango dira: gero eta material gehiago egiten bada eta material hori formazio saio batzuen bidez zabaltzen bada, orduan euskal kultura zehar-lerro bilakatzen ari zara. Eta horren ondotik etor daiteke kultur plana ere. Eskola guztietan dago gutxienez Plastikako, Musikako eta Literaturako irakaslea. Egia da, batez ere Musikakoari eta Plastikakoari, dagokionez ez dagoela kontratazio politika oso serio bat; pentsatzen da edozeinek eman dezakeela Musika edo Plastika. Hori birpentsatuko balitz eta Plastika nahiz Musika irakasleak kontratatzerakoan horietan trebatutako norbait kontratatuko balitz, kultur esparruko hiru zutabe dituzu jada eskolan, eta beraiek hirurek izan dezakete kultur plana aurrera ateratzeko ardura. Hezkidetzak planak sustatu diren modura, kultur planak sustatu daitezke, eskola horren beharretara eta testuinguru sozio-kulturalera egokitua. Dauden baliabideak pixka bat hobetuta, kontratazio modu batzuk aldatuta, kultur planak osatzeko aukera egongo litzateke.

**EAEko Batxilergoko curriculumean aipamena egiten zaio euskal**

**curriculumaren proposamenari; Nafarroan aipamenik ez euskal curriculumari, bai ordea Nafarroako kultura aniztasuna ezagutzearen garrantziari. Herri gisa kohesio-lantzeko tresna bada kulturaren transmisioa, banaketa horiek zer modutan kaltetzen dute kohesio hori?**

Banaketa administratiboak ez du laguntzen, baina ezta egiteko moduek ere. Esan bezala, EAEko dekretuan aipamena egiten zaio euskal curriculumari, baina interpretaziora irekita dago eta eskola bakoitzak erabakitzen du zenbateraino garatu; ez da egiten jarraipenik betetzen den edo ez jakiteko. Bestetik, Nafarroako dekretuan ez dago aipamenik, baina lortu beharreko kultur gaitasunak askoz gehiago zehaztuta daude eta, guk ezagutu dugun eskolen laginagatik, Nafarroan kultur komunikazioan hobeto trebatzen dira. Nafarroan curriculumak garrantzia handiagoa ematen dio kultur komunikazioari, kultur sormenari, artearen ikuspegia lantzeari, kultur ondarearen ezagutzari... Eta horrek badu isla selektibitatean. Azken batean EAEn eta Nafarroan Euskara ikasgaiaren azterketak oso desberdinak dira. EAEn hizkuntza azterketa bat da, eta Nafarroan Gaztelania eta

Literaturan egiten diren azterketen askoz antzekoagoak dira. Alegia, Gaztelaniaren pareko azterketa da, maila handiagoa eskatzen da. Beraz, Nafarroan gutxiago dira euskaraz egiten dutenak selektibitatea, baina egiten dutenek Gaztelaniaren pare egiten dute ikasgai hori. Eta susmoa dut horrek ez ote duen PISA-ko emaitzetan, alegia, Nafarroan irakurketan, komunikazioan eta abarretan emaitzak hobekitzeko.

Gainera, nik uste Nafarroan egoteak sortzen duela irakasleen eta ikasleen artean beste kontzientzia bat, agian EAEn ahulduagoa dagoena. Iruditzen zait EAEn alde horretatik 90eko hamarkadan feminismoaren esparruan geunden maila berean gaudela euskarari eta euskal kulturari dagokionez; berdintasunaren espejismo horren parekoan, euskararen normalizazioaren espejismoan. 90eko hamarkadan ustez legeek berdintasuna zegoela adierazten zuten, belaunaldi oso batean, nirean barne, lasaitze bat egon zen feminismoaren aldarrikapenaren inguruan, pentsatuz berdintasuna lortu egin zela. Eta nik uste euskararen eta euskal kulturaren kasuan antzeko zerbait ari dela gertatzen: EAEn legez, arauz, dekretuz irabazi denez esparru hori, uste da irabazi dela, eta agian horrela galduko dugu. Horrek jendearen artean halako kontzientzia lasaitze bat sortzen du. Aldiz, Nafarroan kontzientzia hori nabaritzen da irakasleen nahiz ikasleen aldetik. Beraz, gakoak ez da hainbeste dekretuan zer esaten den, baizik eta gauzak nola egiten diren, ze sare sortzen ditugun. Aukera bazegoen nahiz eta bi instituzio izan eta bi dekretu egon modu bateratu batean aritzeko, behintzat irakasleentzako materiala sortzen, denontzako lagungarri izan zitezkeen gazetan.

### **Eta oro har ikaskuntza-prozesuan zehar, kulturaren eta honen transmisioaren lanketa zer leku du Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan?**

Egia da agian irakasleek ez dutela horretarako formaziorik jaso. Azken batean, kultur transmisioaren bitartekari diren irakasleak uniber-

tsitatean formatzen dira, eta zein da unibertsitateko egoera? Bitartekariak formatzen dituzten graduatan ez dagoela euskal kulturako ikasgaiak, eta euskal kultura ez dela zeharlerroa. Arteko graduan, komunikaziokoetan, hezkuntzakoan... ez dago euskal kulturako berariazko ikasgaiak, ezta kultur transmisioaren eta kultur irakaskuntzaren inguruko ikasgaiak ere. Eta pentsatu behar dugu gradu horietako ikasleak transmisioan bitartekari izango direla; beraz, kultur transmisioa hobetzeko lehenengo katebegitik hasi behar gara. Lehen urratsa litzateke bitartekari horien formazioa birpentsatzea. Orain, EHUko Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saitetik euskal kulturako ikasgai batzuk ezartzea ari gara proposatzen irakasgaiak ditugun gradu batzuetan, hala nola komunikazioko edo arteetako graduatan, eta badirudi begi onez ikusi dutela. Dena dela, unibertsitate mailan ez dago proiektu orokor bat horri heltzen diona, eta gizarteak ere ez du gizarte premiazat ikusten. Gero esaten dugu euskal kultura dagoen moduan dagoela, baina ez gara joaten lehen katebegira: nola dago unibertsitate euskal kulturaren transmisioan?

Orduan, zer gertatzen da ikaskuntza prozesuan? Kulturaren eta transmisioaren lanketa nolakoa da HHn eta LHn? Gutxiago ezagutzen dut esparrua, ez dut laginik eta gehiago dira susmoak, baina nire irudipena da HHn sormenari leku egiten zaiola, eta HHn gehiago edo gutxiago espazio hori oso ondo ikusia dagoela. Sormena ondo ikusia dago haurra zarenean, baina hortik aurrera esan nahi du ez zarela egokitu gizartera. Gainera, euskalduntzean haurrari garrantzia handia eman zaio eta horrek ere ekarri du euskal kulturaren ikuspegitik haurrari begirako gauza asko egitea. Haur literatura, kantuak edo ipuinak behintzat dezente landu dira. Haur kulturaren eskaintzan ikusten dudana 'baina' da Euskal Herrian eskaintzen den askok oso-oso kutsu didaktikoa duela, baloreen transmisio oso esplizitu bat dagoela. Egia da kultur sorkuntza guztiek transmititzen dituztela

baloreak, baina iruditzen zait kultur sorkuntza esperimentalak gutxiago lantzen dela haurrei begirakoetan. Katalanak eta galiziarrek etortzen zaizkit burura, haiek egindako antzerki mota batzuk, zeinetan ez dagoen narratibitate bat non hau ona edo hori txarra den. Agian narratibitate kate esperimental bat da, sentsazioak, sinboloak sortzen dituenak, eta horrekin geratzen zara, eta horrek sortu dizkizun dukin. Gurean Dejabuk eta beste batzuk egin dituzte agian gauza esperimentalagoak, baina orokorrean iruditzen zait narratibitatea ipuin didaktikoaren ildokoa dela; helburu bat lortzeki begira egindako kultura, besterik gabe kultur sorkuntza bezala emozioak, galderak, kode berriak arakatzeko sorkuntza baino gehiago. Kurioso da, zeren eta lan esperimentalagoek oso ondo funtzionatzen dute haurrekin eta gerora ere kultura esperimentalagoan trebatzeko oso garrantzitsuak dira horiek, zeren eta bestela badirudi eman behar dizutela dena ia-ia murtzikatuta. Askotan ez duzu zertan dena ulertu, geratu zaitezke musikalidadearekin, sentsazioarekin, sortu dizkizun pentsamenduekin, hitz berri horrekin...

HHn lantzen da, beraz, hobeto edo gaizkiago, baina iruditzen zait gero sekulako etena dagoela LHra jauzi egiterakoan. Antzerkia, musika, ipuin kontaketa,... eskolatik kanpo gelditzen dira, bat-batean. Badirudi irudimena edo kultura lantzea, kulturarekin jolas egitea, umeen kontu bat dela; jada heldu izatea dagokiela eta kulturak ez diela ikasbiderik ematen, ez dela ezagutzarako bidea. Iruditzen zait LHn badagoela eten hori.

Egia da lanen bat egin dela literaturaren irakaskuntzan, eta Galzagorrik egin duela lan serioena euskararen esparruan. Baina Bigarren Hezkuntzan sartu aurreko kultura horretan, mugako kultura horretan, badago hutsune bat. 12-14 urte artekoentzat, oro har gizartearen baina kulturaren ere bai, ez dago ezer ere, eta oso urte esanguratsuak dira; hor erabaki dezakezu zer kultur ohitura hartuko dituzun, ze kultur zaletasun, ze hizkuntza ohitura...



# ESPERIENTZIAK 1

AUSARTEN KLUBA

---

## Sansomendi ikastetxeko Ausarten Kluba

‘Ni ausarta naiz, babestu egingo ditut lagunak eta hori ez dutela merezi esango dut’. ‘Zerbait ez bazait gustatzen, esan egingo dizut’. ‘Ez, beti da ez’. ‘Nik ondo tratatzen dut ondo tratatzen nauena’. ‘Hitza erabiltzen dugu, ez eskua’. Horrelako esaldi sakonak entzun daitezke Gasteizko Sansomendi ikastetxeko neska-mutilen ahotik. Ausarten Klubeko partaide dira denak eta euren arteko elkarbizitza hobetzeko tresnatzat dute.

**G**asteizko Sansomendi auzoan kokatuta dagoen ikastetxe publiko integral hau ikas komunitate bihurtu zen duela zortzi urte. HHTik hasi eta DBHra bitartean 300 ikasle inguru ditu, denak ijitoak edo etorkinak (edo hemen jaiotakoak baina gurasoak kanpotarrak dituztenak). Bertako jatorria duten gainerako auzotarrak inguruko beste ikastetxetara joaten dira.

Duela zenbait urte ikasleen emaitzak onak ez zirela eta absentismo maila altua zela ikusi zuten. Elkarbizitza arazo larriak zituzten eta ez zegoen batere espektatiba onik ikasleekiko. Eta horri buelta emateko bihurtu zen ikastetxea ikas komunitate. Txaro Cenizo LHko ikasketa buruak dioen bezala, “amesten hasi ginen: zer-nolako eskola amesten dugu irakasleok? Eta ikasleek? Eta gurasoek? Komunitate osoari galdetu genion eta hortik ondorioztatu genituen gure eskolaren ezaugarriak zein izan behar zuten. Helburu nagusi bat gurasoak eskolara erakartzea zen. Horrekin asistentzia igotzen da eta denok gusturago sentitzen gara. Eta beste helburu eta erronka bat ikasleen hobekuntza akademikoa edo arrakasta lortzea izan zen. Guk ikasle guztiek ikastea, titulua lortzea eta Batxilergora edo Lanbide Heziketara joatea nahi dugu. Pozik eta gustura etortzea eskolara, baina lanera etortzea eta helburu batekin: ikaste prozesuarekin jarraitzea eta formazio altua edukitzea”. Edurne Agirre DBHko ikasketa burua ere argi mintzo da zentzu horretan: “Oso garrantzitsua da guk itxaropen altua edukitzea ikasleekin. Benetan sinesten baldin badugu ikasle batek egin dezakeela, emaitzak askoz ere altuagoak izango dira. Eta hori ez baldin badaukagu, ez dago ezer egiterik. Hori klabea da”.

Ikas komunitate bakoitzak bere arau bateratua erabakitzen du, eta Sansomendiko komunitateak tratu onaren aldeko apustua egitea erabaki zuen. Eredu dialogikoaz baliatuz eta komunitate osoa inplikatur hainbat Hezkuntza Jarduera Arrakastatu eramaten dituzte aurrera Sansomendin eta horiek dira eguneroko lanaren oinarri eta helburuak lortzea ahalbidetzen dietenak. Hezkuntza Jarduera Arrakastatu horiek sei dira:

1. Talde elkarerragileak
2. Tertulia dialogikoak:
  - Literatura-tertuliak
  - Tertulia curricularra
  - Arte tertuliak
  - Musika tertuliak
  - Tertulia pedagogikoak
  - Genero indarkeria
  - saihesteko tertuliak
3. Gatazkak saihesteko eta ebazteko eredu dialogikoa
4. Ikaskuntza-denbora zabaldu (liburutegi tutorizatuak, tailerrak, tutore lagun...).
5. Senideen formazioa
6. Komunitatearen partaidetza  
Hain zuzen ere, gatazkak saihesteko eta ebazteko eredu dialogikoaren barruan (hirugarrena) dago kokatuta Ausarten Kluba.

### Zer da Ausarten Kluba?

Ausarten Kluba denen arteko elkarbizitza hobetzeko tresna da, “elkar-



Ezkerretik eskuinera: Txaro Cenizo, Nahia Salbarredi, Edurne Agirre, Miriam Domingos eta Ainara Jurado.

bizitarrak gabe ez baitago arrakasta akademikorik”, Miriam Domingos Lehen Hezkuntzako PTak dioenez. Erreminta honen jatorria ere kontatzen digu: “Alde batetik, Itziar Hipólito irakaslea Lehen Hezkuntzako 1. mailako tutorea bere gelako umekin Begoña Ibarrolaren *Ausarten Kluba* liburua irakurtzen eta kontatzen hasi zen. Umeen arteko gatazkak eta bazterketa ditu gaitzat liburuak, eta ipuina irakurri eta komentatzeko baliatzen hasi zen Itziar. Gainerako irakasleok horren berri izan genuen eta beste geletan ere lantzen hasi ginen. Eta beste alde batetik, garai beretsuan Bilbora joan ginen ikas komunitateen kongresu batera. Han Valentziako beste irakasle baten esperientziaren berri izan genuen. Lehen Hezkuntzako 1. mailako tutore zen eta bere gelako umekin egiten zuen lana kontatu zuen: lagunak aukeratu egiten direla, laguntasuna adierazteko bata bestea babestu behar duela... Guk ideia horiek Itziarrek ipuinarekin landu zuenarekin lotu genituen, eta hortik sortu genuen Ausarten Kluba”.

Hasieran Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailan hasi ziren Ausarten Klubarekin, “egokiagoa iruditu zitzaigun etapa hori, haur txikiak handiagoak baino moldagarriagoak direlako” dio Nahia Salbarredi LHko ingeleseko irakasleak. Eta berehala jarraitu zuten hurrengo mailetan ere. “Izan

ere, umek gelan zeukaten Ausarten Klubarekin pasatzen ziren hurrengo ikasturteko gelara. Talde bezala hori zeramaten eta tutore berriak ezaugarri horrekin hartzen zituen: ‘gu klub bat gara eta horrekin jarraitu egingo dugu’. Eta horrela, pixkanaka-pixkanaka DBH 1. mailara iristea lortu dugu”.

Gela guztietan dago Ausarten Kluba eta bertako partaide guztiak ausartak dira. Hori da bereizgarria: klubekoa izatea ausarta izatea da. Baina, zer da ausarta izatea? Bada, lagunak ondo tratatzea, indarkeriarik ez erabiltzea eta hitzez konpontzea sortzen diren gatazkak. Horrek dauka balioa, erakargarritasuna eta hori da ausarta izatea. Hori egiten duena klubeko partaide da. Aldiz, hori betetzen ez duena klubetik kanpora botatzen dute (jarrera aldatu arte, konpromisoa hartu arte). Eta denek izan nahi dute Ausarten Klubeko kide.

“Gu talde bat gara, denok nahi dugu talde honetan egon eta horretarako elkar ondo tratatu behar dugu. Lagunak ondo tratatzen dituen ausarta da”. Hori da leloa eta ikasleek ikasi dutena. “Gakoa da erakargarritasuna kentzea txarto portatzeari edota biolentzia izateari” dio Edurne Agirrek. “Kontua ez da zintzo portatzea, baizik eta ‘zu zara super guay zintzo portatzen zarelako eta inguruok ondo tratatzen dituzulako. Eta beraz,

ausarta zara’. Protagonismoa horri ematen diogu, eta ez gaizki portatzen denari. Zeren batzuetan gertatzen da gelako guay-a, guapoena... destruktiboena dela eta protagonistak horiek direla. ‘Egon zaitez isilik, kalera botako zaitut, zure gurasoei deituko diet...’ eta horrelakoak esaten dizkiegu eta konturatu gabe protagonismoa ematen diegu. Egiatzatuta daukagu, gainera, modu horretara gatazkak ez direla gutxitzen. Ondo tratatzea da guay izatea; hor dago gakoa. Biolentziak duen erakargarritasuna aldatzea da kontua. Zeren hori da gizartean dagoena. Eta ikusten dugu DBHko neska-mutilekin zer gertatzen den. Lehen erlazio afektiboen gaineko tertuliak egiten ditugunean argi ikusten da: gaiztoa da erakargarria. Eta behin adin horretara iritsita, horri buelta ematea oso zaila da. Horregatik ari gara lantzen txikitatit hasita”. Orain, protagonismoa beste gauza batzuekin lortu behar dute, gauza positiboekin, modu egokian.

### **Klubean sartu eta atera**

Sinbolikoki gela bakoitzean Ausarten Kluba irudikatzen duen kortxo bat dago: alde batean Ausarten Kluba eta beste aldean koldarrak. Egunaren hasieran ume bakoitzaren argazkia duen txartela Ausarten Klubaren aldean egon ohi da. Gero, norbaitek zerbait egiten badio beste norbaiti, erasoren

## ESPERIENTZIAK 1: AUSARTEN KLUBA

bat sortzen badu... bere argazkia hartu eta koldarren aldean jartzen du. Orduan, gortina magikoa eta abar egiten zaizkio. Jarrera aldatzen badu berriro ere ausarten aldean jartzen du bere argazkia. Jarrera aldatu ezean, koldarren aldean jarraitzen du. Gainera, gerta daiteke egun horretan besteak berarekin eseri nahi ez izatea, edo jolastu nahi ez izatea... Ausartak direnek eskubidea daukate ondo tratatzen dituztenekin baino ez egoteko. Halere, hurrengo egunean, denak berriro ausarten aldean jartzen dira eguna hasteko. “Garrantzitsua iruditzen zaigu denak ausartak izatea egunaren hasieran. Agian egun batean koldarren aldean egon denak hurrengo egunean beste bati lagundu egingo dio”, azaltzen du Ainara Jurado LHko irakasleak. “Gainera, aldaketa hori egitea garrantzitsua da, zeren bestela umeak markatuta gelditzeko arriskua dago: gauzak puskatzen dituenak, besteak jotzen dituenak... Eta hori puskatu beharra dago. Gauzak ondo egiteko eta aldatzeko aukera eman behar zaie. Eta eraldaketa egin duten ikasleak izan ditugu!”.

Sansomendin ohiko egoerari buelta ematen diote eta protagonismoa biktimari ematen diote. Erasotzailea klubetik atera egiten dute, ez diote kasurik egiten. Ez berarekin haserretu direlako, baizik eta bere jarrera ez dutelako onartzen. Ez daukate ezer bere kontra, bere jarreraren kontra baizik. Gero, jarrera aldatzen badu,

berriro ere klubeko kide bihurtzen da. Bitartean, ordea, protagonismorik gabe geldituko da. Eta horretarako bi estrategia erabiltzen dituzte Gasteizko eskola honetan:

**1- Ezkutua:** ezkutua egitea bata bestea defendatzea da. Hau da, norbaitek beste norbait gaizki tratatu duela ikusten baldin badu, defendatu egin behar du, erasotzailearen alde jarri eta “horrelakorik ez dut onartzen” esan behar dio erasotzaileari. “Ni ausarta baldin banaiz eta gaizki egin duela ikusi badut, inplikatu egin behar dut eta defendatu behar dena defendatu behar dut”. Hori da ezkutuaren jarrera eta posizioa.

Bitarteko honekin salatariaren papera aldatzea lortu dute: lehen salatari zena orain ausarta da. Mirian Domingosek argi azaltzen du: “Ni zure laguna baldin banaiz eta ezin badizut lagundu, laguntza eskatzera joango naiz eta laguntzeko moduan den irakasleari edo helduari kontatuko diot zer gertatzen ari den. Hori egiten duena ausarta da eta hori azpimarratzen dugu. Gure artean ez da salatari hitza erabiltzen. Ideia bestelako da: ‘ni ausarta baldin banaiz babestu egingo dut nire laguna eta esan egingo dut hori ez duela merezi’”.

**2- Gortina magikoa:** gortina sinboliko bat da. Gortina bat itxiko bailitzan egiten da keinu jarrera txarra eduki duenaren aurrean, eta horrekin

zera adierazten da: “Horrela jarraitzen baduzu, gortina magikoa egingo dizut eta niretzat ez zaude, desagertu egingo zara. Jarrera egokira bueltatzen zarenean irekiko dut gortina”. Irakasleek zein ikasleek erabiltzen dute gortina magikoa, eta jada oso barneratuta daukaten dinamika da. Esate baterako, ikasle batek beste bati esan diezaioke: “Tontakeriak esaten ari zara? Bada, gortina magikoa eta kito. Esan nahi duzuna, nik lanean jarraitu behar dut”. Edo irakasleak esan diezaioke: “Ez zara protagonista eta jarrera horrekin jarraitzen duzun bitartean ez duzu gure arretarik lortuko. Ez gurea eta ez beste ikaskideena”. Mirian Domingosek dioen bezala, “indiferentzia hori ikusten dute; alegia, taldeak bera gabe jarraitu egiten duela. ‘Zu hemen ez zara protagonista; gehiago gaude. Jarrera koldarra duzun bitartean guk ez dugu zurekin ezer jakin nahi. Gu taldean gaude eta taldean ondo gaudenak eta zorionsu garenak lanean ari gara, ausartak gara eta gu gara protagonistak. Eta zuk ez duzu lortuko gu haserraraztea”.

Gortinak noiz arte irauten du? Bada, jarrera aldatu arte. Behin jarrera aldatutakoan berriro ere taldean onartzen da. “Eta guk hor egon behar dugu aldaketa hori ona izan dela adierazteko, ‘zein ondo’ esateko. Hori ere garrantzitsua da” gehitzen du Nahia Salbarredi Ingeleseko irakasleak. “Jarrera aldatzen duten momentutik taldeko partaide sentitu behar dute”.

### Jarrerak eraldatzen dira

Jarrera eraldaketak frogatzen dituzten adibide mordoa dute Sansomendiko irakasleek. Esate baterako, elkarrizketa hau eduki dezakete bi ikaslek:

- ‘Ez zait gustatu egin didazuna’.
- ‘Baina broma zen’.
- ‘Bai, baina niri ez zait gustatu. Eta zuk onartu egin behar duzu. Ez beti da ez’.

Norbaitek ezetz esaten badu, ezetz da. Hori ere ikasia daukate: “Agian beste bati gustatuko zaio, baina nirekin ari zara, niri egin didazu eta niri ez zait gustatu. Eta errespetatu egin behar duzu”.

Ezezkoarekin batera bada beste puntu garrantzitsu bat ere: inork ez aguantatzea inorren gauzak. “Nik hori







ez egiteko esan badizut eta jarraitu egin baduzu, nik ez daukat zertan zure aldamenean egon, joan egingo naiz”. Txarok bere gelan gertatuko adibide zehatz bat kontatzen du: “LHko 1. mailan, asteko asanblada egiten ari ginen. Haur bat erortzear zegoen eta laguntzera altxa nintzen. Nire lekura bueltatu nintzenean ikasle bat bertan eserita zegoela ohartu nintzen, nire aulkian eseri zen. Ni aurretik konturatu nintzen beste baten ondoan zegoela eta hura molestatzen ari zitzaiola. Eta horrexegatik zutitu eta joan zen nire aulkira. Egoera hartan bi aukera nituen:

1- Asanblada moztu eta “e, ez molestatu...” esaten hasi. Kasu horretan molestatzen ari zenari emango nion protagonismoa eta berriro kosta egingo zitzaidan asanbladarekin hastea edo jarraitzea.

2- Molestatzen ari zen haren ondora joan eta han eseri, alde egindako ikaslearen aulkian.

Nik bigarren aukera hori egin nuen. Hartara, molestatzen ari zena isilik geratu zen, zera pentsatuz: ‘nire ondoan zeunden eta joan egin zara; bakarrik utzi nauzu’. Hori izan zen egin zuenaren ondorioa. Kito. Hor gelditu zen”.

Horrelako kasuetan nabarmen gelditzen dena molestatzen aritu dena

da, ez lekuz aldatu dena. Eta horixe da, hain zuzen ere, aldaketa. Molestatu duena gelditzen da pentsakor, zer egin duen hausnartzen: “Ez du nire ondoan egon nahi molestatzen ari naizelako. Bestela, nire ondoan jarraituko zuen”. Inorri ez zaio gustatzen bakarrik gelditzea, noski. “Baina ikasteko modu bakarra da. Ez badiote esaten molestatzen ari dela, bere horretan jarraituko du. Horregatik, garrantzitsua da molestatzen ari bada, esatea. Eta adieraztea laguna izatea nahi badu besteen nahia errespetatu behar duela. Hori txikitatik hasten gara lantzen”, dio Mirianek.

Horrekin guztiarekin lotuta bada beste puntu bat ere: aukeraketa. Lagunak aukeratzeak ere garrantzi handia duela azpimarratzen dute Sansomendiko irakasleek: “Ez da egia denok lagunak garela; denok gara gelakideak, hori bai, baina lagunak aukeratu egiten dira. Laguntasunaren oinarria tratatu onak dira; laguna babesten nauena da, gauza positiboak esaten dizkidana. Eta horrek botere harremana puskatzen du”.

Ikusleek ere lan asko egiten dute. Azken finean, hor daude eta euren jarraitzaileen arabera gatazkak ildo batera edo bestera bidera daitezke.

Mirianek dio ikasleak haserretzen direnean askotan galdetzen dietela:

“Haserre zaude? Ados, baina horrek ez dizu eskubiderik ematen zure haserreari niri botatzeko. Zure haserrearekin kudeatzen ikasi behar duzu eta horretan laguntzeko prest gaude gu. Baina beti modu egokian: ez garrasika, ez hitz itsusiak esaten...”. Hitza da tresna; “hitza erabiltzen dugu, ez eskua” hori da beste leloetako bat.

“Nik lehen mehatxatu besterik ez nuen egiten. Eta hemen ez dut berriro inor jo. Eta gustatzen zait nor naizen”. 12 urteko ikasle batek esandakoa da. Beste une batean 20 haurrek beste bati hala esan zioten: “Ez dugu onartzen horrela tratatzea”. Horrelako eraldaketak ikusi dituzte Sansomendiko ikastetxean Ausarten Klubaren ondorioz.

Elkarbizitza asko hobetu dela diote denek. “Arazoak eta gatazkak badaude, noski, hori egunerokotasunaren parte da. Baina kontua da nola konpontzen diren. Zein da protagonista? Ausarta, ondo tratatu nauena. Eta hori oso garrantzitsua da: nik ondo tratatzen dut ni ondo tratatzen nauena. Txarok dioen bezala, “zein da gizartean daukagun biolentzia arazo nagusia? Botere harremanak. Eta hementxe dago hasiera hori. Azken finean, kontziente izan behar dugu maite gaituenak ondo tratatuko gaituela”.

# ESPERIENTZIAK 2

PERPIGNAN-EN HAUR HEZKUNTZA

## Perpignan-en Haur Hezkuntzako esperientzia bizitzen

2017-18 ikasturtean Eskurtze Bigarren Hezkuntzako Institutuko Haur Hezkuntzako lehen mailako ikasleek esperientzia gogoangarria eduki zuten. Klase arrunt bat ematen ari zirela, ustekabe handi bat izan zuten: bidaia profesional bat egiteko aukera! “Pyirene-LH” izeneko proiektu baten barruan, ikasle zein irakasleentzat antolatutako bidaia bat, Perpinyàra. Proiektu hori Eskualde Garapenerako Europako Funtsak finantzatzen du (EGEF), eta helburu jakin bat du: mugaz haraindiko lurraldeetan, pertsonen heziketako sistemak eta gaitasunak bultzatzea eta garatzea, eta pertsonen enplegurako sarbidea hobetzea.



### ESKURTZE BHIko HAUR HEZKUNTZAKO 1. MAILAKO IKASLE TALDEA

az egin genuen bidaiak gauza asko eman dizkigu. Hasteko, “Pyirene-LH” izeneko proiektua ezagutu dugu. Hezkuntzaren arloan, mugaz bestaldeko identitate eta espazio profesionala eraikitzea ekarri du horrek. Eta, era berean, gure lanerako aproposak diren espazioak ezagutzera eta gure arteko elkarbizitza lantzerantz eta sustatzera eraman gaitu. Guk egin dugun bidaia ez da proiektu horren barruan garatu den jarduera bakarra: gure bigarren mailako ikasleek Iparaldeko haur-eskolak ezagutzera joan ziren iazko urrian, eta horietako batzuek hantxe egin zuten hilabeteko praktikaldia. Lerro hauetan kontatu

nahi dizueguna zera da: batetik, bidaietan ikusitako haurrentzako egiturak nolakoak diren; bestetik, nola lehen ezagutzen ez genuenak esperientzia pertsonal baten forma hartu duen orain; eta, azkenik, gure lanbideaz kontzientzia handiagoa nola eratu dugun. Baina joan gaitezen pixkanaka...

Proiektuaren ideia kontatu zigutenean, “Zein ondo!”, pentsatu genuen; baina laster konturatu ginen ezin ginela joan pentsatu guztiok, eta ildo horretatik etorri zen gure ustekabe handiena: ikasgelako hamar pertsona joan zitezkeen soilik, eta beste hamar beste taldetik; 20 ikasle guztira. Irakasleei dagokienez, ikastetxeko

4 irakaslerekin partekatu dugu gure esperientzia. Hala ere, ulertzekoa da talde handi batekin haurren esparruetara sartu ezin izatea, haien egunerokotasuna apurtzen baitugu; horregatik, 24 pertsonako talde bat izatea erabaki zuten gure irakasleek.

Eta zergatik Perpinyà? Ipar Katalunian eta gure Iparraldean, antzeko errealitate linguistikoak daude; euskaraz hitz egiten da hemen, eta katalanez han. Bisitatu ditugun leku batzuetan, oso presente dago errealitate zail hori, adibidez, Cam-Mainadan, edo La Bressolan. Baina hori geroago kontatuko dugu.

Bidaia hasi baino lehen, bilera batzuk egin genituen hari guztiak lotu ahal izateko eta gure artean ere hobeto ezagutzeko. Hasiera batean oso urrun ikusten zen bidaia berehala iritsi zen, eta, horrekin batera, gauza berrien aurrean sortzen diren emozioak etorri ziren; esperientzia berriak eduki nahia, ikasteko desira, gogo handia, dibertitzeko eta ondo pasatzeko grina eta, nola ez!, urduritasuna eta orientaziorik eza. Maletan hori guztia sartuta, Perpiyàrako bidea hartu genuen, egunerokoa eskuan genuela. Hona hemen egun horietan ezagutu genuena:

### Martxoak 18

Igande hartan, 10:00etan geratu ginen Abandoko tren-geltokian. Autobusa gure zain zegoen han, maletak sartu eta abian jartzeko. 9 orduko bidaia

izan zen, eta, 2 geldialdi egin eta gero, hotelera iritsi ginen, nekatuta baina ilusio osoz. Maletak norberaren logelan utzi eta apur bat lasaitu eta gero, Perpinyà haizetsu batek egin zigun harrera. Auzoa ezagutzeko asmoz, bueltatxo bat eman genuen, eta goiz itzuli ginen hotelera, hurrengo egunerako gauzak prestatzera.

### Martxoak 19

Goizeko 9:00etan, Cam-Mainadara iritsi ginen. Orain dela bost urte, 2009. urtean, La Bressola Elkarte eskola batean elkar ezagutu zuten lau hezitzaile elkartu ziren, eta “haur-eskola” txiki hau sortu zuten, non haurrek katalanez hitz egin eta abestu ahal duten, dibertitu ahal diren.... Haur-eskola horretan, 12 umerentzat dago lekua, 2 solairuko etxe batean. Etxea guztiz egokituta dago umeentzat, haien erosotasuna bermatzeko. Beheko solairuan, sukaldea eta umeak jolasteko espazio zabal bat daude, bai eta barruko patio ireki bat ere. Goiko solairuan, ordea, logelak, bainugela eta aldagelak dituzte. Bi solairuak lotzen dituzten eskailerak hesi berezi batzuekin itxita zeuden, umeen segurtasuna bermatzeko.

Hezitzaileekin hitz egiteko orduan, asko harritu gintuen haiek kontatutakoak: haurrekin lan egin ahal izateko zailtasun handiak dituzte gizonezkoek; susmagarriak dira; alegia, umeek sexu-abusuak pairatuko dituzten beldur dira.

**La Bressola eskola elkarteak gaur egun, eta bide luzea egin ondoren, zazpi ikastetxe eta 1.000 ikasle baino gehiago ditu Ipar Kataluniako bost udaletan. Euskal Herriko Seaska elkartearen parekoa da Ipar Katalunian.**

Han, Elna izena zuen neskato bat zegoen, eta izen horren nondik norakoak ere kontatu zizkiguten: oso hurbil zegoen Elnaren Amaetxearen omenez jarri zioten izena gurasoek, eta leku hori bisitatzea gomendatu ziguten biziki, interesatuko zitzaigulakoan. Astean zehar tarteren bat bagenuenez, saiatuko ginen tokia bisitatzen.

Jan ostean, beste bisita bat egin genuen, “ADSEA 66” izeneko elkarte berezi batera. Han, Karine Gonzalezek azaldu zigun “ADSEA 66” gurasoei harrera, prebentzioa, laguntza psikologikoa eta sostengua ematen dizkien zentro bat dela; profesionalak, nagusiak eta haurrak elkartzen dira zentro horretan. Etxe horren funtzionamendua Françoise Doltoren Etxe Berdearen ereduaren oinarritzen da, eta elkartzeko espazio bat da, epaiketa orotatik libre egon nahi duena. Boluntarioek zein unibertsitateko irakasleek hartzen dute parte proiektu horretan.

### Martxoak 20

La Bressola eskolara abiatu ginen goizeko 9:00etan. La Bressola eskola elkarte bat da, hezkuntza katalanez sustatzen duena; Euskal Herriko Seaska elkartearen oinarrituta dago, haien izena barne! 1976an ireki zuten lehen eskola, 7 ikaslerekin. Gaur egun eta bide luzea egin ondoren, zazpi ikas-



Mas Bresson ume zein gazteen aisialdirako espazioa.



## ESPERIENTZIAK 2: PERPIGNAN-EN HAUR HEZKUNTZA

tetxe eta 1.000 ikasle baino gehiago ditu Ipar Kataluniako 5 udaletan. Haien metodologia azaldu ziguten: gela berean, adin desberdinetako umeak daude, elkarri hizkuntzarekin laguntzeko eta proiektuen bidez lan egiteko.

Hango koordinatzaile pedagogikoak hitzaldi bat eman zigun guztia kontatzeko. Hitzaldiaren ostean, talde txikitik banatu ginen, eta hura zortea gurea! Ikasgelak bisitatu genituen, eta aukera eman ziguten umeak nola aritzen ziren behatzeko.

Arratsaldean denbora librea eman zigutenez, herria bisitatzera joan ginen, eta Perpinyàko leku miresgarrienak ezagutu genituen.

### Martxoak 21

Gure hurrengo geralekua “Elnaren Amaetxea” edo “Suitzako Amaetxea” izan zen. Monumentu Historikoa da 2013tik. Lehen egunean, haren berri eman ziguten. Harrituta geratu ginen, harrituta eta hunkituta. Ez genuen espero halakorik; Espainiako Gerra Zibilean, hainbat errepublikano joan ziren Frantzia aldera babes bila, errefuxiatu gisa. Askok zirenez, errefuxiatuen esparruetan sartzen zituzten. Errefuxiatu gehienak Kataluniatik zetozenez, errefuxiatuen esparruak antolatzeke lekurik handienak hondartzak ziren Frantziako muga pasatu eta gero. Oso latzak ziren bizi-baldintzak; 10 ume jaioberritatik 9 berehala hiltzen ziren, eta 3 hilabete irauten zuten gehienez; ez zuten ur garbirik, hotz

handia egiten zuen, janaria urria zen...

Hura ikusita, emakume haien eta haien seme-alaben bizitza aldatu eta hobetu nahi izan zuen Elisabeth Eidenbenzek, beste aukera bat eman. Horretarako, amaetxe baten proiektua zeukan buruan, eta Elnan zegoen Bardou gaztelua baliatuta, martxan jarri zuen proiektua. 1939ko martxotik 1944ko apirilera bitartean, ia hamabi naziotako 600 ume jaiotzen ziren han. Ume horien eta haien amen bizitzak hobetzeko eta bizitzeko indarra eman zien. Bigarren Mundu Gerran, hainbat judu erbesteratu zen, eta Elnara joan ziren asko babes bila. Askotan, izen faltsuak ematen zituzten, kontzentrazio-esparruetara eramango zituzten beldur baitziren. Erbesteratuen bizi-baldintzak, dena den, kontzentrazio-esparruetako parekoak ziren hainbat kasutan, eta, horrek ematen duen latsa historikogatik, ez da ezagun egin orain gutxi arte han gertatua. Emozio, itxaropen, elkartasun eta gizatasunez betetako gertakizunak aurkitu genituen han.

### Martxoak 22

Gure azken eguna zen, eta IRTS ikaskuntzako zentroa bisitatu genuen. Eskurtze bezalako ikastetxe bat da, baina Lanbide Heziketako ikasketak eskaintzen ditu soilik. Unibertsitate Eskola baten egitura du, eta, haur-hezkuntza ikasteaz gain, arlo sozialeko beste espezialitate batzuk ere irakasten dira, hainbat prestakuntza mailatan banatuta.

Komunitaterako zerbitzu soziokulturalak ikasteko moduluak irakastera dago zuzenduta ikastetxe hori (Eskurtze bezala), baina badu bereizgarri bat: proiektuak egiten dituzte beste herrialde batzuekin eta batez ere Kataluniarekin.

Hasteko, IRTSra heldu ginenean, gela batean sartu ginen, eta hitzaldi bat eman ziguten haien irakasteko funtzionamenduaz, atzerrian ikasteko proiektuez eta bakoitzaren iraupenez; eta zer-nolako ikastetxea, instalazioak eta praktika motak zeuzkaten ere azaldu ziguten. Hitzaldia amaitu ostean, ikastetxea ezagutzeko aukera izan genuen; baina ezin izan genituen instalazio guztiak ikusi, denborarik ez zegoelako. Hala ere, asko harritu gintuen ikusitakoak. Hemengo unibertsitatearen eta Lanbide Heziketako zentro baten arteko zentro bat zen, liburutegi ireki batekin, hainbat gela erraldoirekin, etab.

### Martxoak 23

Bezperan, elkarrekin afaldu genuen, eta, hotelera itzultzean, taldean bidaiari buruzko ebaluazioa egin genuen. Gaindituta zeuden bidaia hasierako urduritasunak, orientazio falta eta ezjakintasunak, eta taldeak hauxe erantzun zuen bidaia hark zer ekarpen egin zien galdetzean: ezagutza, dibertsioa eta askotariko ikuspuntuak. Ezagutza, espazio profesional berriena eta baita bidaia-kide berriena ere. Asteazkenean zehar izandako dibertsioa eta esperientzia ugari horiek errepikatzeke gogoz utzi gintuzten. Itzultzeke eguna heldu zen, eta, etxera hurbildu ahala, gure familiak eta lagunak berriro ikusteko gogoa agertu zen.

Gure zikloari dagokion curriculumak dio esparru formalean eta ez-formalean lan egin dezakegula, 0-3 urte bitarteko umeekin eta 0-6 urte bitartekoekin. Orain, hobeto dakigu zer-nolako espazioak izan daitezkeen horiek, eta gure begirada zabaldu egin da, etorkizunari so eginez.

Eskerrak eman nahi dizkiegu espazio horietan guztietan harrera egin ziguten langileei, lanaldia gugatik eten zutenei, eskaini zizkiguten denbora, adetasun eta interesagatik. Hurren arte!



Elnaren Amaetxea.

Aniztasunaren gaineko monografikoa

SALGAI

[www.hikhasi.eus/webgunean](http://www.hikhasi.eus/webgunean)

**hik hasi**

**33.**

monografikoa



Aniztasun sozio-ekonomikoa,  
kulturala eta linguistikoa:

PAULINA OJAK

# EKARPENAK

HAUR HEZKUNTZAKO BERRIKUNTZAN ADITU TITULUA

---

## Alexander Barandiaran: “Zerbait baliagarria eta eragiteko balio dezakeena egin nahi izan dugu”

Haur Hezkuntzako Berrikuntzan irakasle aditua izateko formazioa eskainiko du HUHEZIK aurten lehendabiziko aldiz. Lanean ari diren Haur Hezkuntzako graduatu, diplomatu eta goi teknika-riei zuzendutako formazioa izango da. Alexander Barandiaran HUHEZIKo irakasleak eta Hazitegiko koordinatzaileak eman digu informazio zehatzagoa.



**G**aur egungo Haur Hezkuntzako gelak ez dira duela urte batzuetakoak bezalakoak. Jada hezitzaileak ez daude beraien gelan eta beraien umeekin. Eredu hori gainditu eta berrikuntza sakonak eraman dituzte aurrera hainbat eta hainbat ikas-tetxeetan. Hormak bota eta gelak handitu, adin desberdinetako umeak juntu jarri, hezitzaileak elkarrekin lanean jarri espazio berean, batetik bestera ibiltzeko aukera eman... Aldaketa sakonak dira eta jardun ho-

rretan helduleku izateko asmoz sortu du HUHEZIK formazio berri hau. Alexander Barandiaran HUHEZIKo irakasleak eta Hazitegiko koordinatzaileak eman dizkigu xehetasun gehiago.

### **Zer beharrek bultzata sortu duzue formazio berri hau?**

Berrikuntza prozesu sakona ekarri dute azken urteetako aldaketek: lehengo koordinazioa eta oraingoa ez dira berdinak, umeak hezitzaile guztienak dira, elkarrekin aritu behar

dute lanean... Aldaketa erradikala da eta hori taldean maneiatu egin behar da, harremanak zainduz, antolaketa-rako denbora hartuz, “oka egiteko” tarte hartuz, pedagogiaz hausnartzeko astia hartuz... Tradizionalki ez da horrelakorik egin eta kulturalki aldaketa sakona dakar. Aldaketa oso bortitza da, krisiak sortu ohi dira eta laguntzeko beharra ikusten dugu.

### **Zein dira azkenaldiko berrikuntzaren gako edo giltzarri nagusiak?**

Berrikuntza prozesu sakon honetan



hiru gako edo giltzarri ikusten ditugu Hazitegin gabiltzanok: taldea, norberaren egoera eta teoria desberdinen integrazioa, hori guztia praktikan txertatuz.

### Taldea aipatu duzu lehendabizi.

#### Norbera bere gelan aritzetik taldean aritzeko aldaketa esan nahiko duzu.

Bai, ni-tik gu-ra pasa garela konturatu gara. Alegia, orain taldean funtzionatzen dela. Orain espazio berean aritzen dira hezitzaile bat baino gehiago, jada ez daude atea itxita. Horrek foku aldaketa ekarri du: orain fokua taldean dago. Eta zer gertatzen da taldean? Bada, taldearen kohesioa ez bada indartsua, taldean norbera ez badago gustura, taldeko harremanak ez baldin badira zaintzen, harremanek ez badute asebetetzen... proiektua gelditu egiten dela, ez dela garatzen, ez dela mantentzen. Horregatik jotzen dugu garrantzitsutzat taldean arreta jartzea.

#### Berrikuntzaren bigarren gakoa norberaren egoera da. Zertan aldatu hori?

Lehen irakaslea zen zentroa eta orain umea dela esaten zaio. Unitate didaktikoak zaharkituta gelditu dira. Orduan, zein da hezitzailearen egitekoa? Behatu bai, baina zer behatu? Esku hartu bai, baina noiz bai eta noiz ez? Berritu bai, baina zer? Aldatu bai, baina zer? Norbera da aldatu behar dena, bai, baina zein da aldaketa hori egiteko prozesua? Zein da norberaren funtzioa taldearekiko? Elkar ikusteak eta elkarrekin aritzeak nola eragiten dio norberari? Nola erlazionatzen gara elkarrekin? Nola lan egin beharko litzateke orain? Zein dira praktika onak? Zer egin beharko litzateke eta zer ez?

Galdera horiek denak egiten dizkio hezitzaileak bere buruari egoera berriaren aurrean. Horregatik, irakaslea zaindu egin behar dela iruditzen zaigu eta horri garrantzia eman diogu. Nola dago hezitzailea pertsonalki eta emozionalki? Antsietatez? Nola funtzionatzen du? Zer egiten du lankideekin, umeekin, familiekin...? Alderdi pertsonala eta profesionala elkarri lotuta landu behar zirela ikusi genuen eta hala egingo dugu.



#### Eta hirugarren zutabe gisa teoria askotarikoaren integrazioa ezarri duzue.

Bai, hala da. Gaur egun teoria anitz ditugu merkatuan eta produktuak balira bezala eros ditzakegu. Oraindik ere badago gurean produktu desberdinak erosteko joera. Zer egin eta noiz eta nola lan egin behar dugun esaten digute, eta guk ez dugu askorik egin behar. Gertatzen dena da alderdi batzuetan produktu horiek bat egiten dutela eta beste batzuetan ez, kontrajarriak daude, baina praktikan denak entsalada berean nahasten ditugu. Eta askotan ez gara ohartzen entsalada murtxikatzen ari garen ala irentsi egiten dugun.

Teorien inguruan hausnarketa egin eta printzipio batzuen bueltan integratzeko saiakera beharrezkoa dela iruditzen zaigu, denak ez direlako balekoak umearentzat. Alegia, informatu eta eskola bakoitzak eraiki behar du berea, eta horretarako printzipio sendoak aukeratu eta horiekin koherente izanez eraiki behar da praktika.

#### Aipatutako guztia praktikarekin txertatzea izango da erronka. Nola egingo duzue hori?

Hasteko, formazio hau lanean ari den jendeari eskaini diogu. Prozesu pertsonal-profesional bat egitearekin batera egunerokotasunera eramateko aukera izatea funtsezkoa iruditzen zaigu eta lanean dabiltzanek badute

aukera hori. Eraldaketa pertsonala eta praktikaren hausnarketa esanguratsua lotuko ditu, beraz, formazio honek.

#### Nolako saioak prestatu dituzue?

18 laguneko taldea osatu nahi dugu, ez gehiago, eta denek izango dute tutore bat jarraipena egiteko. Aretxabaletako campusean egingo dira saioak larunbata goizez, eta horrez gain, urtean hiru asteburutan ere elkartuko gara aterpetxe batean. Hasteko, lehen saioa asteburukoa izango da, elkar ezagutzeko eta taldea egiteko. Ikasturte erdian egingo dugu beste asteburu bat eta amaieran beste bat, bakoitzak egin duen prozesua agertarazteko. Memoria bat idatziko du bakoitzak, bertan azaltzeko nondik hasi zen, zertaz konturatu den, zer gertatu den bere praktikan, zer aldaketa egin dituen, zer barneratu duen... Eta horrekin batera, bakoitzari bere ikastetxean berrikuntza prozesu bat diseinatzeko eskatuko zaio, bere eskolari eskaini ahal izateko.

Ez dugu gauza tradizional bat egin nahi izan, baizik eta zerbait baliagarria eta eragiteko balio dezakeena. Berrikuntzak gauzak modu diferentean egitea dakar eta guk hori azpimarratzen badugu, geure eskaintzak ere ezberdina izan behar du, eta esanguratsua partaideentzako eta guretzako.

# GALDEIDAZU

## ZER DA ETA ZERTARAKO ERABIL DAITEKE “SCRATCH” PROGRAMA INFORMATIKOA?

Imajina ezazu ikasgela bat non neska-mutikoak lanean gogotsu ari diren. Ikasle batzuk Interneten baliabideak bilatzen dabiltza; beste batzuk haien lanaren nondik norakoak eztabaidatzen ari dira. Badaude irakaslearen eginkizuna beren gain hartuta beste ikasleei ordenagailua nola erabili irakasten ari zaizkien ikasleak ere. Bien bitartean, irakaslea ikasgelan bueltaka dabil, eta ikasleei laguntzen die. Harrigarria dirudien arren, ikasle guztiak lanean dabiltza, baita alferrak ere! Azkenean, ikasleek egindako lana partekatzen dute, eta oso memento motibagarria da haientzat. Scratchek halako egoera utopikoa ahalbidetzen du.

Hezkuntza-erreminta dugu, bada, Scratch, baina ia edozer izan daiteke, hezkuntzarako tresna hau ondo badarabilgu. Hortaz, zer da Scratch? Lehenik eta behin, ordenagailuetarako programa informatiko bat da, sakelakoetako aplikazioak bezalatsu. Baina hezkuntzara zuzendutako online komunitatea nahiz programazio-baliabidea ere bada. Programaren bidez, ikasleek lan interaktiboak (istorioak, jokoak edota animazioak, besteak beste) sor eta mundu osoko jendearekin parteka ditzakete.

Programazioaren bidezko baliabide didaktiko bat izateko sortu zen Scratch, eta, hortaz, ikasleak izan ditu beti ikusmiran (7 eta 14 arteko urte-arterako pentsatu zen). Dena den,



### XABIER MADORRÁN DE LA IGLESIA

#### Irakaslea



programak lortutako ospea espero baino handiagoa izan da, eta baliabide informatiko honen erabilzaileak gero eta adin-tarte zabalagokoak izatea ekarri du horrek.

Scratch ulertu ahal izateko, funtsezkoa da programazioa zer den ulertzea, eta honako adibide hau ezin hobea da horretarako: demagun errezeta bat egin nahi dugula. Errezeta horretan, nahi dugun jakia nola egiten den agertuko da. Horretarako, bi atal izan ohi ditugu errezetetan: osagaiak (programazioko datuak Scratchen), eta pauso-sekuentzia (prozesua programan). Pauso-sekuentzia osagaiekin garatzen badugu, jakia egiten dugu, eta gauza bera gertatzen da programatzean.

Lehen aipatutako istorioak, jokoak nahiz animazioak egiteko, programatu egin behar dira. Scratchen bitartez, ikasleek zer nahi duten esaten diote ordenagailuari, eta horrela programatzen dute: istorio bat egiteko, ordenagailuari esan behar diote nolakoak nahi duten. Adibidez, ikasle batek “comecocos” joko famatua sortu nahi badu, ordenagailuari esan beharko dio geziak sakatzeko pertsonaiak mugitu egin behar duela edota bolatxoak lortzeko puntuazioak gora egin behar duela, eta ordenagailuari hori agintzea programatzea da. Azken batean, helburu bat lortzeko agindu egokiak ezartzean datza programazioa.

Scratchek programazio-prozesua errazten die Lehen Hezkuntzako

ikasleei, interfaze simple eta koloretsu bat erabiliz. Gainera, oso programa intuitiboa da, eta, horregatik, laguntzarik gabe erabil daiteke.

Azkenik, azpimarragarria da aginduak ordenagailuari emateko programazio-hizkuntzak daudela. Gizartean hainbat hizkuntza dauden bezala, programazioan ere era askotako hizkuntzak daude. Denek dute funtzio berbera, baina oso desberdinak dira, eta, eginkizunaren arabera, hizkuntza bat hobeto egokitu daiteke beste bat baino. Informatikariek hizkuntza konplexuak eta zailak erabiltzen dituzte, baina Scratchena hizkuntza simple bezain ulerterra da, eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat pentsatuta dago.



Scratchen sortutako proiektu batzuk (aipatzekoa da plataforman proiektu asko daudela euskaraz): lehenengoa joko bat da, eta zaborra biltzean datza; bigarrena Euskal Herriari buruzko galderen joko bat da; eta azkena istorio interaktibo bat da.

### Nola erabiltzen da?

Scratch nola erabiltzen den ulertzeko, sarean TxioEnara ezizena darabilen 13 urteko ikasle batek programarekin izandako esperientzia azalduko dugu.

TxioEnarak oso gogoko du marrazki bizidunetako pertsonaiak marraztea. Horregatik, Scratch erabiltzen hasi zenean, pertsonaia horiek erabili zituen bere istorio bizidunetan. Egindako istorioak sarean partekatu zituen; Scratch-komunitateko beste ikasle askok gogoko izan zituzten, eta iruzkinak eskegi zizkioten (adibidez: “Harrigarria!” edota “Ai, ama, benetan gogoko dut!”). Galderak ere zintzilikatu zituzten egindakoaren inguruan (“Nola egin duzu pertsonaiak gardenak izateko?”). Feedback horrek TxioEnara motibatu egin zuen, eta, marrazki bizidunen kapituluaren segida bat balitz bezala, kapitulu gehiago publikatu zituen astero bere istorioekin.

Hain arrakastatsuak izan ziren haren istorioak, ezen pertsonaia berriak sortu behar izan zituen!

Hala, memento batean pentsatu zuen komunitateak eragin handiagoa izan behar zuela bere istorioetan, haiek baitzituen jarraitzaile. Zozketa batean zetzan proiektu bat sortu eta partekatu zuen plataforman, eta, han, bere pertsonaietako batentzat arreba bat sortzea proposatu zuen. Proiektu hartan, pertsonaiek ezaugarri jakin batzuk izan behar zituztela zehaztu zuen: ile gorria edo berdea izatea, eta adarrak izatea.

Lan horretan, 100 iruzkin baino gehiago izan zituen. Horietako batean, ikasle batek zioen parte hartu nahi

Scratch ordenagailuetarako programa informatiko bat da, sakelakoetako aplikazioak bezalatsu. Baina hezkuntzara zuzendutako online komunitatea nahiz programazio-baliabidea ere bada. Programaren bidez, ikasleek lan interaktiboak (istorioak, jokoak edota animazioak, besteak beste) sor eta mundu osoko jendarekin parteka ditzakete.

zuela zozketan, baina ez zekiela marrazki bizidunetako pertsonaiak marrazten. Horregatik, TxioEnarak beste proiektu bat sortu zuen plataforman: pausoz pausoko tutorial bat, 13 urratsetan pertsonaiak sortu nahiz koloreztatzeko. Urtebetean, TxioEnarak 150 Scratch-proiektu sortu (programatu) eta partekatu zituen, mota askotakoak (istorioak, zozketak, tutorialak, jokoak... , gure sormena bera da programaren muga). Haren programazio nahiz gaitasun artistikoez gora egin zuten heinean, haren proiektuek ere gero eta oihartzun handiagoa izan zuten plataformako komunitatean, eta 12.000 iruzkin baino gehiago jaso zituen urtebetean.



Scratchen interfazea: ezkerrean, programatutakoa ikusteko eremua; erdiko zutabearen, programatzeko elementuak (haien kategoriaren arabera, koloreekin ordenatuta); zutabearen eskuinean, programatzeko eremua (hor jartzen dira programatzeko elementuak nahi dena lortzeko); eta, azkenik, eskuineko zutabea, non laguntza eskaintzen zaion erabiltzaileari.




Gailu digitalak askotan darabiltzaten arren, oso gazte gutxi sor ditzakete bideoak, jokoak, animazioak edota simulazioak. Informazio asko kontsumitzen dute, baina ez dute ezer sortzen. Eta gaitasun digitala izateko, ez da nahikoa txateatzearekin, jokatzearekin edota bilatzearekin; diseinatzen, sortzen edota asmatzen ere jakin behar da. Horretarako, beharrezkoa da programazioa ikastea.

Aurreko adibidean, TxioEnarak hezkuntzatik kanpo erabili zuen programa, baina Scratch nola erabiltzen den ulertzeko adibide bikaina da.

Irakasle batek programa erabiltzean, TxioEnarak bere zozketa-proiektuan egin zuen bezala egin behar du. Hau da, proiektu bat proposatu, ezaugarri batzuk adostuta. TxioEnarak beste pertsonaia bat behar izan zuenean, bere jarraitzaileei proposatu zien hura sortzeko, betiere ezaugarri batzuk bateratuta. Adibidez, matematika lantzeko, irakasle batek erloju analogiko bat egitea proposa lezake, eta ikaslearen esku egongo litzateke beste gutzia. Edota, euskara lantzeko, aukera paregabea litzateke edozeren inguruko istorio interaktibo bat egiteko proposatzea.

Azken batean, kontuan hartu behar da Scratch ez dela programazioa lantzeko baliabidea soilik: programazioa aitzakiazat erabilita, edozer landu daiteke.



Scratcheko programatzeko elementuekin egindako gertaera: saguaren erakuslearekin katu bat ukitzea, "egun on" dio, eta beste norabide batean mugitzen da, "miau!" soinua egiten duen bitartean.

## Sorterri digitalekoak?

Gero eta jende gehiagok deitzen die gaur egungo gazteei "sorterri digitalekoak", teknologia digitalekin batera jaiotakoak eta. Gazte horiek eroso asko sentitzen dira online mezuak bidaltzen, online jokoetan lehiatzen edota Interneten ibiltzen. Baina horrek benetan bihurtzen ditu gaur egungo gazteak trebe teknologia digitalean?

Gailu digitalak askotan darabiltzaten arren, oso gazte gutxi sor ditzakete bideoak, jokoak, animazioak edota simulazioak; esan genezake irakur dezaketela, baina ez idatzi. Trepetatik informazio asko kontsumitzen dute, baina ez dute ezer sortzen. Eta gaitasun digitala izateko, ez da nahikoa txateatzearekin, jokatzearekin edota bilatzearekin; diseinatzen, sortzen edota asmatzen ere jakin behar da, TxioEnarak egiten zuen bezala. Horretarako, beharrezkoa da programazioa ikastea. Azken batean, programatzen jakiteak onura nabarmenak ditu; esate baterako, harago darama ordenagailu baten bidez sor dezakegunaren muga, edota gehiago ikastea ahalbidetzen du. Gainera, programazioaren bidez, *pentsaera konputazional* delakoa garatzen da. Pentsaera mota horren bidez sistematikoki aztertzen da edozer, eta horrek arazo-konpontze nahiz diseinu-estrategia garrantzitsuak irakatsi ditzake. Azkenik, programatzea dibertigarria da, produktibitatea nahiz beste arloetako jardunak hobetzen ditu, eta etorkizuneko mundu-hizkuntzat jotzeko daiteke.

## Jolastearen bidez ikastea

Ikasleek Scratch erabiltzen dutenean, jolastean dabilazala uste dute, baina, hori egiten duten bitartean, ikasten ari dira konturatu gabe! Demagun irakasle batek unibertsoaren gaia baliabide informatiko honen bidez lantzen duela. Normalean, ikasleek planetak aste batzuen buruan ahazten dituzte, haientzat ez direlako motibagarriak. Baina programaren bidez ikasitakoa gogoratuko lukete. Irakasle batek esango balu "Zuen zeregina planeten eskema bat Scratchen egitea da", ikasleek motibazio osoz ekingo liokete lanari, gazteentzat motibagarria delako ordenagailuetan aritzea,

sormena islatu ahal izatea eta mugarik ez izatea. Ez dira konturatuko, lanean ari diren bitartean, informatika, matematika edota zientzia lantzen ari direla, besteak beste.

Era berean, gaur egungo hezkuntzaren oinarrietako bat lantzen da Scratchen bidez, metodo zientifikoa, hain zuzen ere. Programazio-baliabidean edozer egiteko, frogatze-prozesu bat garatu behar da, eta, prozesu horretan, hipotesiak proposatu eta demostratu behar dituzte. Metodo zientifikoa, hipotesiak proposatzen eta egiaztatzen dira. Azken batean, ikasleek horixe egiten dute konturatu gabe, programa erabiltzen dutenean. TxioEnarak, seguruenik, ez zituen bere proiektuak lehen aldiak bukatuko, eta bere akatsak askotan berregin beharko zituen, eta, hortaz, metodo zientifikoa konturatu gabe landu zuen.

Hasieran, ikasleek lan sinpleak egingo dituzte, baina, haien sormenak bultzatuta, gero eta proiektu konplexuagoak egiten saiatuko dira, eta, eginkizun horiek egiteko, gero eta gehiago pentsatu beharko dute. Hori pentsatzean, haien helburura iristeko bideak bururatuko zaizkie, eta batzuk zuzenak izango dira. Frogatze-prozesu hori da metodo zientifikoa funtsa.

Bestalde, jolasaren bidez ikasteak erlazio zuzena du konstrukzionismoarekin. Zerbait sortzea jolas bat izan daiteke ikasle batentzat, eta, hori egiten duen bitartean, jarrera konstrukzionista garatzen ari da. Konstrukzionismoak dio jendeak atazak burutuz ikasten duela. Seymour Papert zientzialari famatuak (adimen artifizialaren sortzaileetako bat) sortu zuen korrantea, eta jakintzaren adiera birplanteatzen du. Pentsaera horren arabera, jakintza ezin da transmititu, bakoitzak sortuz lortzen duenez. Azken batean, Scratchen, imajina dezakezun oro sortuz ikasten da konturatu gabe, eta jarrera hori konstrukzionista da.

Hezkuntzan, jarrera hori gailendu da azkenaldian, eta, horregatik, Scratch eta horrelako erremintak gero eta gehiago erabiltzen dira. Programan, ikasleek zeharka ikasten dute, proiektuak sortzen dituzten bitartean, eta hori zeharo konstrukzionista da.

## Scratchen izaera

Irudimena da Scratchen oinarrietako bat. Programaren bidez, buruan dugun oro ordenagailuko pantailara eramanez dezakegu, eta, gure irudimenak mugarik ez duenez, programak ere ez! Demagun irakasle batek ariketa bat proposatzen duela, eta haren helburua joko bat egitea dela; joko horretan, intsektu batzuek agertu behar dute, eta horien gainean klikatzean irabaziko da.

Halako egoera batean, hauxe gertatuko da seguruenik:

- Hainbat eratan mugituko dira ikasle bakoitzaren intsektuak: baliteke ikasle batek programatutakoaren arabera intsektuak pantailaren ertzak ukitzean errebotatzea; beste baten intsektuak ausaz mugituko dira, edota beste ikasleren batenak gora eta behera ibiliko dira soilik.

- Ikasle batzuek esandakoa baino ez dute egingo, baina egongo da harago doan ikasleren bat. Hark, adibidez, puntuazio-sistema ezar lezake, edota, klik egin eta kale egitean, puntuak kentzea.

- Ikasle bakoitzak egindakoa zeharo desberdina izango da: intsektu desberdinak erabiliko ditu bakoitzak, eta haien tamaina ere desberdina izango da!

Dena den, horren ariketa askeek beti eztabaida sortu izan dute hezkuntza-komunitatean, ikasle bakoitzak gogoko duenera jo eta gutxi ikasi ohi duelako. Scratchen, ez da hori gertatzen, egitekoetan beti zerbait erdietsi behar dutelako ikasle guztiek. Azken finean, zeregin bat dago beti, baina hori egiteko askatasuna ere bai. Horrela uztartzen dira programaren filosofiko bi kontzeptu oinarritzkoenak: aipatu berri dugun askatasuna, eta esangura, alegia, egitekoek esanahia izatea.

Guztiok entzun dugu noizbait umeren bat esanez: “Zertarako ikasi behar dut hau, gero ez badut erabiliko?”. Scratchen ikuspuntutik, halako ikasleak ez daude oker, eta edukiei balioa ematen zaie (edukiei ez bazaie baliorik ematen, hutsal eta esangurarik gabeko bihurtzen dira ikasleentzat). Horretarako, esangura bilatzen da ikasleak sortzen duen edozertan, ge-

hienetan, askatasunaren bidez. Esate baterako, irakasle batek agindu lezake joko bat egitea eduki hutsak lantzeko, baina, Scratchen bidez, horiei esangura erraz eman ahal izango lieke, ikasleei askatasuna emanez. Horrela, ume batek bere bideo-joko gogokoeneko pistola ekarriko du jokoan klikatzeko, edota beste batek, egitekoa oso gustukoa izan duelako, eskatzen zaiona baino gehiago egingo du. Kontua da zeregina bientzat motibagarria izango dela, eta edukiak ikasiko dituztela. Izan ere, ikasle bakoitzak nahi duena egingo du (betiere egitekoari tinko lotuta); baina guztientzat izango da esanguratsua egitekoa, askatasuna izango dutelako.

Horretaz gain, Scratch gaur egungo neska-mutikoentzat hain erreminta erakargarria izateko arrazoia honako hau da: ahalbidetzen duen ikaskuntza soziala. Sare sozialen mendean bizi gara, eta etengabe komunikatzen gara elkarrekin. Duela gutxira arte, ez zegoen harremanik ia eskola desberdinetako ikasleen artean. Egungo guztiok dugu gogoko egiten dugun oro partekatzea; baina, guk plastikako eskolan makilatxoekin zubia egiten genuenean, gure gelakideek soilik ikus zezaketen.

Scratchek Internet baliatzen du ikasleentzako sare sozial bat sortzeko, eta hori benetan garrantzitsua da, plataforma erreminta eraginkorra izan dadin. Egindako edozer partekatzea erraza izateak umeak asko motibatzen ditu. Azken batean, nagusiok gogoko dugu partekatzea —gure Facebookei begirada bat ematearekin aski da konturatuzeko—, eta gauza bera gertatzen da ikasleekin.

Motibazio handia lortzen da ikastetxe askotako ikasleen artean harremanak sustatuz. Gainera, oso metodo aberasgarria da ikasleentzat, beste ikasleengandik ikas dezaketelako. Izan ere, Scratchen proiektu bat partekatzean, beste edonork ikusi dezake zer pauso eman ditugun proiektua egiteko. Horren bidez, ikasle batek zerbait interesgarria ikusten badu, hori nola sortu ikasi dezake.

Hala ere, ikastetxeen barnean ere garrantzitsua da Scratch irakasle askok erabiltzea, komunitate indartsuak

“Gaitasun digitalak” diseinatzeak, sortzea edota asmatzea dakar, eta ez bakarrik jolastea, txateatzea edota Interneten ibiltzea.

Scratchen oinarriak hiru dira: esangura, askatasuna eta izaera soziala.

Imajina dezakezun oro sortuz ikasten da konturatu gabe, eta jarrera hori konstrukzionista da. Hezkuntzan jarrera hori gailendu da azkenaldian.

sortzeko. Halako ikastetxeetan, erraza izango litzateke Scratchen filosofiarri tinko heltzea, eta guztion artean proiektuak egitea. Demagun ikastetxe bateko Matematikako, Natura-Zientzietako eta Euskarako irakasleak Scratch erabiltzearen aldekoak direla. Orduan, diziplinarteko proiektu bat garatu ahal izango lukete guztien artean. Adibidez, baso batean istorio bizidun bat egitea proposa dezakete. Mugimendua programatzean, balio matematikoekin jokatuko lukete umeek (pertsonek segundoko 2 cm-ko abiaduran mugitzea, adibidez). Ondoren, istorioa idatziz, euskara landuko lukete. Azkenik, basoko animalia eta landareak landu beharko lituzkete basoa egiteko, eta, horren bidez, naturaren zientziak jorratuko lituzkete.

Amaitzeko, aipatzekoa da hezkuntza-premia bereziko umeentzat ere aukera paregabea dela Scratch. Halako ikasleek zailtasunak izan ohi dituzte arretari eusteko, eta beharrezkoak dituzte atentzioa ematen dieten estimuluak. Scratch dibertigarria, koloretsua, motibagarria, sormenarentzat lekua duena eta soziala denez, ez dago estimulu hoberik behar bereziak dituzten ikasleek arretari euts diezaioten.

## GALDEIDAZU: SCRATCH PROGRAMA INFORMATIKOA

**Scratchek muga bat du: sortzen dena ordenagailuaren patailan ikusi behar dela, eta ezin dela ukitu. Horregatik garatu da Makey-makey baliabidea errobotika lantzeko. Horrek Scratchen egindakoa era erraz batean mundu fisikora ekartzeko aukera ematen du.**

### Kritikak

Scratch eta horrelako erremintei egin ohi zaien kritika nagusia zera da: curriculumean ez dutela lekurik, eta, hezkuntza arautzen duena curriculumarekin, ez dutela tokirik hezkuntzan. Eta zuzen daude, legediak ez du tokirik Scratchen egiten diren diziplinari arketetarako (ikasgai askotako edukiak lantzen dituen ariketa). Baina horrek ez du esan nahi Scratch eta horrelako baliabideak erabili ezin daitezkeenik; curriculumean ez dira agertzen, curriculumarekin batera atzerakoia delako. Legediak dio hezkuntzan “zer” egin behar den, baina ez du “nola” azaltzen. Arrakala hori erabili, eta haren bidez txertatu beharko genuke programa. Horretarako, curriculumeko edukiak landu beharko genituzke, baina Scratchen bidez. Azken batean, baliabidearen bidez legedian jasota dauden nahi beste edukiak landu daitezke, Scratchek duen muga bakarra sormena bera delako. Adibidez, talde-lanaren bidez unibertsoaren gaia landu nahi bada, pagotxa da Scratch erabiltzea: ikasleei esan diezaiekegu planeten eskema bat egiteko plataforman. Ikasleren batek Esne Bideko planetak Eguzkiari biraka adieraziko lituzke. Beste batek, apika, planetak haien arteko distantziaren arabera adieraziko lituzke. Kontua da guztiek gogoan izango lituzketela planetak nolabait. Azken finean, proiektu horretan, curriculumean esandakoa beteko genuke: ikasleek edukiak ikasiko lituzkete (aipatutako curriculumak arautzen duen “zer” hori), baina Scratch erabiliko lukete

horretarako (curriculumak arautzen ez duen “nola” hori).

Irakasle askok curriculumarekin aitzakiatzat darabilte halako erremintak erabili behar ez izateko, nola ez, eta hori nagikeria kontu hutsa da. Irakasle horiei erakutsi behar zaie Scratch noraino den erreminta eraginkorra, eta, erabiltzen zaila dirudien arren, sinplea dela oso.

Etengabe aldatzen ari den izaki biziduntzat ulertu behar dugu hezkuntza, eta, hortaz, irakasleek ez liokete ikasteari inoiz utzi beharko. Irakasleek halako jarrera sustatzea erdiesten badugu, erraza izango da Scratch eta horrelako erremintak hezkuntzan txertatzea.

Dena den, begi-bistakoa da irakasle askoren jarrera berrikuntzen aurkakoa dela. Eta irakasle horiei oso ondo azaldu behar zaie Scratch zertan den. Halako programa bat zaila irudituko zaio informatika arrotza duen norbaiti, baina oso erraza da erabiltzea. Irakasleek plataformaren onurak ikusiko balituzte, maisu kontserbadoreen ere erabiliko lukete seguruenik; azterketak zuzentzeko alfer samarrak diren irakasleak ere, agian, animatuko dira Scratch erabiltzera!

### Benetan mugarik gabekoa?


Azpimarratu beharra dago, lehen Scratchek mugarik ez duela aipatu dugun arren, muga bakar bat duela: sortzen duzuna ordenagailuaren patailan ikusi beharko dugula, eta ezin dezakegula ukitu. Gauzak horrela, Scratch garatu zen bitartean, beste ekimen bat garatu zen programaren bidez errobotika lantzeko: Makey-makey.

Baliabide horrek Scratchen egindakoa era erraz batean mundu fisikora ekartzeko aukera ematen du, eta, haren bidez, ordenagailuko patailaren muga apurtzen da. Ume batek piano bat sortuko balu programan, berez teklatuaren bidez kontrolatu beharko luke, baina Makey-makey piano hori erreal bihurtu dezake.

Makey-makey txip bat eta kable batzuk dira, eta ordenagailuaren teklatu eta sagua ordezkatzeko ditu. Horretarako, konexioak egin behar dira kableekin, eta edozein material eroalerekin funtzionatzen du. Azken batean, Scratcheko joko batean joko-

tzeko teklatuko botoiak erabili ordez, adibidez platano bat erabili ahal izatea ahalbidetzen du.

Makey-makey dirudiena baino aukera gehiago zabaltzen dizkie ikasleei. Scratchen egindakoa ukitu dezakete gailuaren bidez, eta, horrela, edozein material eroale (ura, arkatzez idatzitakoa, plastilina, aluminiozko papera edota ikasleen beren gorputza, besteak beste) erabili haien imaginazioari bururatzen zaion oro egiteko.



Makey-makeyren eta Scratchen artean platanoekin egindako pianoa.

### Etorkizunean zer?


Etorkizunari begira, Scratchek bultzada instituzionala behar du. Hezkuntza-curriculumean programazio-gaitasuna eta, hortaz, gure baliabide informatikoa agertzea beharrezkoa da programa hedatzeko.

Horretaz gain, aipatzekoa da, mugikorrek gero eta gehiago darabilzkgunez, Scratchek aplikazio bat izan beharko lukeela. Nola ez, bada, aplikazio hori ordenagailukoaren anaia txikia izango litzateke, eta ez luke sekula ordeztu beharko ordenagailuko baliabide informatikoa.

Azkenik, azpimarragarria da jendeak ez duela Scratch ezagutzen. Horregatik, publizitate-kanpainen bidez baliabide informatiko hau mundu osoan zehar hedatu beharko litzateke. Hedapen horri esker, ikasleek programazioa gogoko izatea lortuko litzateke, eta trabes egingo nuke programazioaren hazia barnean ereinda duen ikasleren bat izango dela hurrengo Steve Jobs!



# ARGITALPENAK



## BARBANTXO

Olalla Gonzalez / Marc Taeger

### KALANDRAKA

Bazen familia bat oso seme txikia zuena, garbantzua bat bezain txikia. Behin, ama bazkaria prestatzen ari zela, azafraria falta zuela konturatu zen. Barbantxok berehala joan nahi izan zuen erostera, eta orduan hasiko da abentura. Aho tradiziozko ipuin herrikoia, arbasoen kulturaren eta egungo mundu modernoaren arteko topagune aparta.




## BAT SOZIOLINGUSTIKA 108

Askoren artean

### SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Ale honek, 'Osasuna eta Hizkuntza', 2017an Euskal Herrian antolatu zen lehen ikastaroa du oinarri. Osasungintzan euskarak presentzia eta erabilera handiagoa izan dezan han eta hemen aurrera eraman diren praktiketan lagun-garri izatea du xede. Unibertsitatearen, osasungintzaren eta euskalgintzaren arteko lanaren emaitza da.



## SUTONDOKO KONTUAK

Txerra Rodriguez

### INDEPENDENTEA

Sutondora batu eta supazterrera arri-matu, su berriak pizten eta su zaharrak mantentzen. Eta lapikoan borborka, gure errealitate hurbiletik abiatuta, soziolinguistika eta haren dibulgazioak. Autoedizioaren bidea aukeratu du idazleak oraingoan. Besteak beste, Sechu Senderen 'Made in Galiza' liburuaren itzultzaile gisa da ezaguna Rodriguez.




## ANIZTASUN SOZIO-EKONOMIKOA, KULTURALA ETA LINGUISTIKOA: PRAKTIKA ONAK

Askoren artean

### HIK HASI

Hik Hasiren 33. monografikoak aniztasuna du ardatz. Egun ikastetxeetan aurkitzen den aniztasun sozio-ekonomikoa, kulturala eta linguistikoa hobeto ulertzeko datuak eta testuak biltzen dira. Eta horrez gain, hainbat ikastetxetan aurrera eramandako esperientziak eta praktika onak.



## TORLOJUAK

Txabi Arnal / Edu Zelaieta

### ELKAR

Omar lagunaren hamsterra akrobazia istripu batean hil zela jakin zuen egunean, atsekabe handia hartu zuen Anek. Horregatik, etxekoei gauza bera ez gertatzeko, zerbait asmatu beharrean zegoela erabaki zuen. Axtuk okigam bat egitea bururatu zitzaion; torlojuak biltzen hasi zen horretarako. Javi Kintanak ilustratu du liburua eta Elkar argitaletxearen *Kuku 61* bilduman aurkitu daiteke.



## ENE ADISKIDEA IZAN NAHI DUZU?

Eric Battut

### IKAS

Sagu berdea bera bezalako adisbide baten bila dabil, baina animalia guztiek bizkarra ematen diote. Elefante batekin zorte hobea izango ote du? Adiskidetasuna, desberdintasuna, itxaropena eta beldurra lantzen dira eta 6 urtetik gorako haurrei zuzenduta dago. Ikas Euskal Pedagogia zerbitzuak argitaratu berri du *Pilotis* sailean, eta zubereraz ere entzun daiteke Ikas-en webgunean.

# PROPOSAMENA

## Tinko Euskara Elkarteak

### Euskara pantaila handian ere behar dugulako

‘Euskara zinema aretoetan’ programaren baitan, Tinko Euskara Elkarteak prestatu du ikasturte berrirako eskaintza. Adin tarte desberdinetan banatuta, orotara zortzi film eskainiko dituzte egitasmoan parte hartuko duten ikastetxeetan. Horrekin batera, film horietan lantzen diren gaien inguruko material didaktikoa ere landu du elkarteak 25 urteko ibilbidea osatu duen honetan.



**G**rufaloo, *A zer nolako heroiak*, *Albert*, *Sagu & Pagu*, *Zipi & Zape*, *Asterix & Obelix*, *Pan*, eta *Handia*. Guztiak pantaila handian eta euskaraz. Horiek dira Tinko Euskara Elkarteak aurtengo ikasturtean Euskal Herriko hainbat ikastetxetan eskainiko dituen filmak.

Izan ere, hizkuntzaren normalizazio prozesuan aurrera egiteko, Tinko Euskara Elkartearen beharrezkoa

ikusten dute haurrek zinema euskaraz ikusteko aukera izatea eta ohiturak hartzea txikitatik. Elkarteko ordezkari den Iñigo Arandiak aipatzen duenez, “zinema gakoa da euskararen normalizazioan, ametsak eragiten dituelako. Eta eskolaren testuinguruarekin uztartzeak, aktibitate dibertigarri batean bihurtzen du, haurrek euren gelakideekin partekatzen dutelako zinea, pantaila handian euskaraz ikusteko esperientzia”.

Elkarteak sortu zutenetik, 3 eta 16 urte bitarteko haur eta eskola umeentzako “erakargarriak, dibertigarriak eta hunkigarriak” diren filmak prestatzen aritu dira, baita film horietan lantzen diren gaien inguruko material didaktikoa ere. Hezkuntza arloan lanean diharduten mediku, psikologo eta pedagogoz osatutako Durangoko Sasoia elkartearekin osatzen dute material didaktikoa elkarlanean eta Arandiarentzat, “ikasle eta hezitzai-

leentzat filmaren balioak identifikatu, ulertu eta horietaz hausnartzeko tresna dira”.

Ikastetxeekin egiten duten dinamikaz galdetuta, Arandiak aipatzen du oso modu errazean egiten dutela elkarlana: “Ikastetxe bakoitzak gure eskaintza jaso ondoren, egokiena iruditzen zaien filma aukeratzen du, dagokion udalerriko zineman ikusteko. Emanaldia baino astebete lehenago, email bat bidaltzen zaio ikastetxeari data, filma eta ordutegia gogoraziz, material didaktikoarekin batera. Emanaldi egunean, zineman harrera egin eta filma ikusten dute. Prozesua amaitzeko galdetegi bat osatzeko eskatzen diegu, proiektuaren eta filmen inguruko balorazioak egiteko etab.”.

### 25 urteko ibilbidea

Ikasturte berezia izango da honakoa elkartearentzat. Izan ere, mende laurdena bete du Tinkok euskarak pantaila handian ere tokia izan dezan lanean. *Euskara Zinema Aretoetara* programaren baitan, filmak banatzeko eskubideak lortu, horiek bikoiztu, material didaktikoa sortu eta banatu dute ikastetxe, hornitzaile, udal eta banatzaile sare zabal batean barnean. Arandiak dio 25 urteko ibilbidearen “balorazioa hobeezina” dela, eta honakoa gaineratzen du: “Oso

sendotua dagoen proiektua dela esan dezakegu. Izan dira garai hobeak, krisi ekonomiko garai aurrekoak, esaterako, baina baita okerragoak ere. Iazko ikasturtea oso oparoa izan zen, eta gainera, lehen aldiz, Nafarroan ere lanean hasi gara”.

Gaur egun Hego Euskal Herriko 300 ikastetxek parte hartzen dute proiektuan eta 80.000 ikusle inguru izaten dituzte urtero. 25 urte hauetan, berriz, 1,6 milioi haurrek ikusi dituzte Tinkok euskarara bikoiztu eta banatutako filmak, 100 inguru.

Etorkizunari begira, lau erronka nagusi aipatzen ditu Arandiak: “Batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan proiektuan parte hartzen ez duten ikastetxe horietara iristea izango dugu erronka. Bigarrenik, Nafarroan proiektua sendotzea dugu helburu; harremanak sortu, landu, elkar ezagutu, proiektua ezagutzera eman etab. Hirugarrenik, Ipar Euskal Herrian ere saretu nahi dugu eta bertako ikasleek ere euskarazko zinema ikusteko aukera izan dezaten bermatzea izango da erronka. Eta amaitzeko, Europan ere sareten hasiak gara. Batez ere guretzat egokiak izan daitezkeen film berriak lortzeko, esperientziak partekatzeko, bereziki haur eta gazteek zinemagintzari buruz duten ezagutza eta kultura sustatzeko”.



### Tinko Euskara Elkartea

#### Harremanetarako

- Tinko Euskara Elkartea
- Tel.: 943 310036
- E-posta: [tinko@tinkoeuskara.eus](mailto:tinko@tinkoeuskara.eus)
- Webgunea: [www.tinkoeuskara.eus](http://www.tinkoeuskara.eus)

#### Hezkuntza arloko eskaintza

- Ikastetxeentzat pantaila handian ikusteko filmak euskaraz
- Film horietan lantzen diren baloreen inguruko material didaktikoa





# ATZEKO ATETIK



## BOKAZIOZ MILITARRA BAKAZIOZ MAIXUA

IÑAKI MURUA BERTSOLARIA

**N**iretzat, horixe zen gure herriko maixua eta goiburua-ren lehen baieztapena berak esan egiten zuelako dakit.

Bigarrena ere berak erakutsi zidan!

Bost urterekin hasi nintzen Gabiriko eskolan eta erdaraz tutik ez nenkienez, helduagoen azalpenekin moldatzen nintzen, beste hasi berriak bezala, maixuak ez baitzekien hitz bakar bat ere euskaraz eta gainera, berarekin bederatzi urte egin nituen arren, sekula ez nion entzun hitzik nire hizkuntzan, ezta bai edo ez ere. Deskuidoren bat edo izan zezakeen bada, ezta? Hori ere ez!

Antzemango zenionez, hamar-dozena bat urte arte ez nion hitzik ulertu. Baina ikasi bai ikasi nizkion eta oraindik ere gogoan dauzkat, maixu harekin egon behar izan genuen guztiok bezalaxe: *“Eres una acémila! Tu padre que te compre unas cabras y un zurrón y al monte a cuidarlas, que para esto no vales... necio más que necio!”* Eta gure auzoko batek eskolatik etxerakoan, *necio* hitza gogoan, hala bota zidan: “hi haiz ume negoziua hi!!!”

Bost kuarto inporta zitzaigun guri

hark zer zion; guk ezin genion ulertu eta berak ez zigun batere karinorik, eskerrak, alboko gelan maixtrarekin egoten ziren neska koskortuenek zaindu eta goxatzen gintuzten atsendetan! Haientzat ikasketa eta lehia zen gutaz arduratzea eta guretzat, munstro haren beldurrik gabeko gune goxoa; bizia zen, beste egoskor antzu haren atzaparretatik aske eta goxo sentitzea behingoz!

Eta ikasi egiten genuen, beharko! Larunbat goizetan eskola-ume denok borobilean bere mahaiaren jiran jarri, bera erdian eserita zela, galdera saila eta, erantzun zuzena eman ezean, ilaran ondoren genuenak aurrea hartzen zigun. Ederra zen bada geu baino gazteagoak gure aurretik jartzea!! Edo ez genuela behar beste ikasi eta urritz makilarekin bi eskuetako hatz muturrak ia pitzatu arte egurtzea eta makila apurtzen bazen, berria, geuk ekarri behar gainera...

Zer eta nola ikasten genuen, ordea? Bada, Espainiako mendi garaienak, mendikateak, ibaiak eta ibaiadarrak, sumendiak, itsasoak, lurmuturrak, golkoak... eta baita Europakoak eta Mundukoak ere. Dena buruz,

inolako zentzurik gabe; bagenekien bost, zer ziren kaboak eta golfoak! Estaca de Vares, Ajo en Santander... El Titicaca... Dena itzultzen hasten ginen eta pentsa dezakezue zer xelebrekeria zelakoan geratzen ginen maixu ogro hark ikasazten ziguna.

Beraz, bera ez zitzaigun sinesgarri egiten eta ondorioz ezta berak zion ezertxo ere. Dena buruz ikasi, antzerkia egin eta urteak pasatzeko zain iraun, handik ospa egitea ospatzeko.

Memoria eskaseko pertsona bilakatu nauela uste dut, bere garaian memorizatze ahalegin izugarria eta alferrikakoa eginarazi izanak, ezeren logikarik gabe, zer eta zertarako zen ez genekiela. Memoria ondo erabiltzen eta gogoz baliatzen ikasi ez tako penaz bizi naiz.

Gauza bakarra ikasi nuen haren-gandik eta eragindako kalte guztien gaindik balio izan didana: nolako ez den izan behar!

\* “...animalia, astapotroa. Zure aitak ahuntz batzuk eta zakutoa eros diezazkizula eta mendira haiek zaintzera, eskolarako ez duzu balio eta! Egoskor, temati halakoa!”







Yükseköğretim  
Bakanlığı  
Millî Eğitim Bakanlığı  
Yükseköğretim Genel Müdürlüğü

## 2018-2020 Akademik Yılı

### Yükseköğretim Kurumlarında (YÜK) YERLEŞTİRİLMİŞ ÖĞRENCİLERİN İZLENİMİ

Yükseköğretim kurumlarında öğrenim gören öğrencilerin, üniversite hayatlarındaki deneyimleri, beklentileri ve karşılaştıkları sorunlar hakkında görüşlerini dile getirebilecekleri bir platform oluşturulmuştur.

#### 1. YERLEŞTİRİLMİŞ ÖĞRENCİLERİN İZLENİMİ

Yükseköğretim kurumlarında öğrenim gören öğrencilerin, üniversite hayatlarındaki deneyimleri, beklentileri ve karşılaştıkları sorunlar hakkında görüşlerini dile getirebilecekleri bir platform oluşturulmuştur.

Yükseköğretim kurumlarında öğrenim gören öğrencilerin, üniversite hayatlarındaki deneyimleri, beklentileri ve karşılaştıkları sorunlar hakkında görüşlerini dile getirebilecekleri bir platform oluşturulmuştur.

#### 2. YERLEŞTİRİLMİŞ ÖĞRENCİLERİN İZLENİMİ

Yükseköğretim kurumlarında öğrenim gören öğrencilerin, üniversite hayatlarındaki deneyimleri, beklentileri ve karşılaştıkları sorunlar hakkında görüşlerini dile getirebilecekleri bir platform oluşturulmuştur.

#### 3. YERLEŞTİRİLMİŞ ÖĞRENCİLERİN İZLENİMİ

Yükseköğretim kurumlarında öğrenim gören öğrencilerin, üniversite hayatlarındaki deneyimleri, beklentileri ve karşılaştıkları sorunlar hakkında görüşlerini dile getirebilecekleri bir platform oluşturulmuştur.

#### 4. YERLEŞTİRİLMİŞ ÖĞRENCİLERİN İZLENİMİ

## YERLEŞTİRİLMİŞ ÖĞRENCİLERİN İZLENİMİ

Yükseköğretim kurumlarında öğrenim gören öğrencilerin, üniversite hayatlarındaki deneyimleri, beklentileri ve karşılaştıkları sorunlar hakkında görüşlerini dile getirebilecekleri bir platform oluşturulmuştur.